



DELITUEI AURREA HARTZEKO PLANA

EAJ – PNV

EBBk 2023ko azaroaren 27ko batzarrean onetsitako moldaketa



AURKIBIDEA

Orrialdea

1.- SARRERA	6
2.- PLANAREN XEDEA	10
3.- APLIKAZIO EREMUA	12
4.- ARRISKU PENALAK IDENTIFIKATZEA	15
4.1. METODOA	15
5.- PERTSONA JURIDIKOARENTZAT ERANTZUKIZUN PENALA AURREIKUSTEN DUTEN DELITUAK	17
6.- EAJ-PNVREN JARDUEREN BARRUAN EMAN LITEZKEEN DELITUAK	20
7.- PREBENTZIO, ZAINZA ETA KONTROLERAKO INDARREAN DAUDEN NEURRIAK	21
7.1. ERAKUNDEEN KONTROLA	23
7.1.1. 6/2002 Lege Organikoa, Alderdi Politikoei buruzkoa	23
7.1.2. 8/2007 Lege Organikoa, Alderdi Politikoen finantzaketari buruzkoa	26
7.2. BARNE ARAUDIA	28
8. DELITU IZAN DAITEZKEENAK ETA PREBENTZIO NEURRIAK EAJ-PNVREN BAITAN	29



8.1. Isilpeko gaiak agerian uztean egin daitezkeen delituak	29
8.2. Prebentzio neurriak	31
8.3. Iruzur egitearekin zerikusia duten delituak	33
8.4. Prebentzio neurriak	34
8.5. Betearazpena zapuztearekin zerikusia duten delituak	41
8.6. Prebentzio neurriak	42
8.7. Kaudimen-gabezia zigorgarriarekin zerikusia duten delituak	43
8.8. Prebentzio neurriak	53
8.9. Kalte informatikoekin zerikusia duten delituak (Zigor Kodearen 264tik 264 quater-era doazen delituak)	61
8.10. Prebentzio neurriak	61
8.11. Negozioetako ustelkeria delituak	62
8.12. Prebentzio neurriak	63
8.13. Kapital-zuriketa delituak	71
8.14. Prebentzio neurriak	71
8.15. Alderdi politikoen finantzaketan eginiko delituak	72
8.16. Prebentzio neurriak	73
8.17. Ogasun Publikoaren eta Segurantzaren Sozialaren aurka eginiko delituak	77
8.18. Prebentzio neurriak	80
8.19. Langileen Eskubideen kontra eginiko delituak	84
8.20. Prebentzio neurriak	87



8.21. Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren aurka eginiko delituak	88
8.22. Prebentzio neurriak	89
8.23. Funtzionario eroskeria delitua	91
8.24. Prebentzio neurriak	93
8.25. Influentzia-trafiko delitua	94
8.26. Prebentzio neurriak	95
8.27. Konstituzioak bermatzen dituen Funtsezko Eskubideak eta Askatasun Publikoak baliatzeko orduan eginiko delituak	97
8.28. Prebentzio neurriak	99
9. PLANA GAINBEGIRATZEA ETA EZAGUTARAZTEA	101
9.1. Planaren kontrola	101
a) Instrukzio eta Kontrol organoa: Aberri Berme eta Zaingo Batzordea	102
b) Erabakiak hartzeko organoa. Aberri Epaimahaia	104
9.2. Plana ezagutzera ematea eta betearaztea	105
10. BARNE ESPARRUAN INFORMAZIOA EMATEKO SISTEMA	106
10.1. Xedea eta izateko arrazoia	106
10.2. Informazioak kudeatzeko prozedura. Barne informazio kanala	111
10.3. Datuak babestea eta Intimitate-eskubidea	112
10.4. Onarpen-tramitea	113



10.5.	Instrukzioa	114
10.6.	Jarduerak burutzea	116
10.7.	Informazioa erregistratzea	116
10.8.	Errepresaliak ez hartzeko bermea.	117



1. SARRERA.

Egun indarrean dagoen Zigor Kodeak ezartzen ditu pertsona juridikoen erantzukizunak eta, hauen artean, alderdi politikoen erantzukizuna.

Zigor Kodearen 31.bis artikulua ezartzen du pertsona juridikoak hurrengo delituen erantzule penalak izango direla:

- a) Euren izenean edo kontura egindako delituak, eta euren onura zuzenerako edo zeharkakorako, haien legezko ordezkariak edo pertsona juridikoaren izenean erabakiak hartzeko eskumena dutenek, edo antolaketa- edo kontrol-eskumenak dituztenek, banaka edo pertsona juridikoaren barneko organo bateko kide gisa aritzen direnean.
- b) Sozietate-jarduerak egikaritzean egindako delituak, euren izenean edo kontura, eta euren onura zuzenerako edo zeharkakorako, aurreko lerrokadan aipaturiko pertsona fisikoen agintaritzaren mende daudenek egindakoak, egitate horiek egin ahal izan badituzte euren ikuskapena, zaintza eta kontrola egikaritzeko eginbeharra era larrian urratu dutelako, kasuaren inguruabar zehatzak kontuan izanda.



Delitua aurreko zenbakiko a) letran aipatutako pertsonak egiten badute, pertsona juridikoak ez du erantzukizunik izango; betiere, honako baldintza hauek betetzen badira:

1^a.- Administrazio-organoak, delitua egin baino lehen, eraginkortasun osoz erabaki eta betearazi ditu zaintza eta kontrol neurri egokiak, antzeko delituak prebenitzeko edo delitu horiek gertatzeko arriskua nabarmen murrizteko.

2^a.- Ezarritako ereduak funtzionatzen duela eta betetzen dela egiaztatzeko lana pertsona juridikoaren organo baten ardurapean jarri da, eta organo honek botere autonomoak ditu esku hartzeko, kontrolatzeko edo legearen arabera pertsona juridikoaren barne kontrolen eraginkortasuna gainbegiratzeko.

3^a.- Egile indibidualek delitua egin dute antolaketa eta prebentziorako ezarri diren neurriak urratuz.

4^a.- 2. baldintzan aipatutako organoak dagokion gainbegiraketa, zainketa eta kontrol lana ez du egin gabe utzi, ezta era desegokian bete ere.

Argi geratu da pertsona juridikoa erantzukizunetik salbuetsita geratuko dela, delitua egin baino lehenago, egin dena moduko delituak



prebenitzeko edo delitu hauek nabarmen murrizteko antolaketa eta kudeaketa eredu bereganatu eta abiarazi baldin badu.

Antolaketa eta kudeaketa eredu hauek ondorengo baldintza hauek bete beharko dituzte :

1º.- Prebenitu behar diren delituak gerta daitezkeen jarduera-esparruak identifikatuko dituzte .

2º.- Protokoloak edo prozedurak ezarriko dituzte pertsona juridikoaren borondatea argi uzteko, erabakiak hartzeko eta erabaki horiek betearazteko ezartzeko prozesua zehaztera begira.

3º.- Prebenitu behar diren delituak eragoztera begira, egoki jotzen diren baliabide finantzarioak kudeatzeko eredu egokiak aurreikusiko dituzte.

4º.- Prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta egokiro betetzen dela kontrolatzeko organismoari ezarriko diote arriskuen eta bete gabe utzitakoen berri emateko derrigorra.

5º.- Diziplina-eredu bat ezarriko dute ereduak aurreikusitako neurriak betetzen ez direnean, behar besteko zigorrak ezar ditzan.

6º.- Ereduaren funtzionamendua aldizka egiaztatuko dute, eta aldarazteko prozesua abian jarriko dute xedapenak nabarmen urratu direla ikusten denean edo antolakuntzan, kontrol egituran edo jardueran emaniko aldaketengatik beharrezko jotzen denean.



3/2015 Lege Organikoak, martxoaren 30ekoak, alderdi politikoen jarduera ekonomiko -finantzarioa kontrolatzekoak, 9.bis artikulua gehitu dio Alderdi Politikoen Legeari. Honen arabera, alderdi politikoei ezartzen die, beren barne arauetan, ordenamendu juridikoaren kontrako jokaerei aurrea hartzeko sistema abian jartzeko eta gainbegiratzeko lana egiteko derrigorra, Zigor Kodearen 31.bis artikuluan aurreikusitako ondoretarako.

Testuinguru honetan, interes orokorraren zerbitzura jarri duen estrategiaren parte bat den heinean eta Legea errespetatuz, EAJ-PNVk Delituei Aurrea Hartzeko Plan hau egin du, eragin dakizkiokeen arrisku penal guztiak jasotzen dituen, indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin ados.

Ondore honetarako, EAJ-PNVko alderdikide guztien derrigorra da Delituei Aurrea Hartzeko Plan hau ezagutzea eta betearaztea.



2. PLANAREN XEDEA.

Delituei Aurrea Hartzeko Plan honen xede nagusia da Alderdiaren baitan legearen kontrako jarduerak prebenitzeko lanaren zerbitzura egotea, alderdikide eta/edo langile guztiek lan horretarako tresna egokia izan dezaten. Horrela, Plan honek funtzionatzen du delituei aurrea hartzen laguntzeko mekanismo gisa, tresna egokia izango delako zigor daitezkeen jarrerak eta prozedurak identifikatzerako orduan, propioak zein hirugarrenek eginikoak.

Halaber, Prebentzio Plan honen xedea da Alderdiaren borondatea egokiro ezartzea, arrisku penala eman daitekeen egoera batean abian jarri beharreko egintzak erabakitzeke orduan, bere interesen defentsa bermatzea helburu, legez ezarritako araudia eta egoera prozesala aintzat hartuta.

Plan honen beste helburua ere bada kanal egokia ezartzea, EAJ-PNVko kideek indarrean dagoen araudia urratzen dela egiaztatzen dutenerako edo halakoren bat antzematen dutenerako. EAJ-PNVko kide guztiek derrigortuta egon behar dute Plan hau hitzez hitz aplikatzera, indarrean dagoen araudia betetzeko konpromisoak Alderdiarentzat daukan garrantzia aintzat harturik.



Azkenik, Plan honen oinarrian dago gizartearen zerbitzura egoteko EAJ-PNVk daukan konpromiso irmoa eta, era berean, legearen kontrako edozein jokaera gaitzestekoa, legez ezarritako xedapenen kontrakoak izateaz gain, EAJ-PNVren baloreen kontrakoak direla azpimarratuz.



3. APLIKAZIO EREMUA.

Plan honek hartzen ditu EAJ-PNVko alderdikide guztiak edo/eta Alderdiarentzat lan egiten duten pertsona guztiak.

Erabat derrigorrezkoa izango da plana errespetatzea eta aplikatzea, alderdikideentzat zein Alderdiko langileentzat. Plan honek barne hartzen ditu, era berean, EAJ-PNVrentzat lan egiten duten profesionalak edo/eta zerbitzu ematen dioten kanpoko enpresak.

Beraz, kanpoko enpresa eta partikularrek emaniko zerbitzuek ere Plan hau ezagutu eta bete beharko dute EAJ-PNVrekiko harreman guztietan, Alderdiarekin izango diren harreman guztiak eta harekin egingo diren eragiketa guztiak Planean ezarritakoaren mende egon daitezen, bereziki delituei aurrea hartzeko neurriei dagokien guztietan.

Kontu handiz baloratu behar den arrisku faktorea da Alderdiak hirugarrenekin izan ditzakeen harremanak, hain zuzen ere ustelkeriarekin eta eroskeriarekin zerikusia izan dezaketen jokaerei dagokienez, eroskeria aktiboarekin zein pasiboarekin, hain zuzen.



Kontuan izan behar da ustelkeriaren kontrako borroka lehenetsi beharreko gaia dela nazio gehienetako gobernuen agendan, eta EAJ-PNV bezalako alderdi politiko batek arreta handia jarri behar du gai horretan, bereziki jokaera horiek borrokatzera bideratutako praktikei dagokienez.

EAJ-PNVk, hirugarrenekin dituen harremanetan, hitzematzen du Legea eta estandar etiko gorenak beteko dituela, eta harremanak izango dituen hirugarren horiek ere konpromiso berberak hartzea espero du.

Gogoeta horiek guztiak garrantzitsuak dira EAJ-PNVrentzat, hirugarrenekin akordioak baloratzerakoan, eta bere kasuan, hitzartzerakoan.

EAJ-PNVren konpromiso etikoaren eta bere buruarekiko exijentzia mailaren adierazpen gisa, Delituei Aurrea Hartzeko Plana EAJ-PNVren web orrialdean egongo da irakurgai.

Ondorioz, arreta berezia jarri behar zaie ustelkeria eta eroskeria jokaerei, EAJ-PNVren jardun osoa gidatzen duten printzipio etikoek hala exijitzen dutelako.



Horregatik, hirugarrenekin izango dituzten harremanetan, alderdikideek oso adi egon beharko dute ustelkeriarekin zerikusia izan dezaketen jardueren zantzuak eta eroskeria egoerei dagokionez eman daitezkeen egoerak antzemateko.



4.- ARRISKU PENALAK IDENTIFIKATZEA

4.1. METODOA.

Delituei Aurrea Hartzeko Plan hau egiteko orduan EAJ-PNVren baitan eman daitezkeen arrisku penalak pertsonalizatzea ahalbidetu duen metodoari jarraiki egin da.

Ataza honi ekin zaio Alderdiaren ohiko funtzionamendura hurbilduz, ohiko jarrerak, bere jarduera burutzeko ezarri diren prozedurak, bere barne araudia osatzen duten Estatutu eta Araudiak aztertuz, bai eta EAJ-PNVri eragiten dioten esparru guztietan Arauz aurreikusitako arauak arakatzuz ere.

EAJ-PNVren baitan eman daitezkeen arrisku penalak identifikatzeari ekin zaio, EAJ-PNVri zehatz-mehatz egokitu ahal zaizkion arriskuen zerrenda bat osatuz. Identifikazio lan hau ikuspuntu bikoitzetik egin da, hau da, alde batetik, pertsona juridiko izateagatik eman daitezkeen arriskuak kontuan hartuz eta, bestetik, EAJ-PNVren arriskuak kontuan hartuz.

EAJ-PNV erantzukizun sozialaren eta etikaren esparruan ibilbide luze eta zabala egin duen Alderdia izanik, geureganatu dugun



erantzukizunari buruzko agiri guztiak arakatu eta jaso dira, bai eta Aberri zein Herrialde mailako Estatutu eta Araudietan ezarritakoa ere, betidanik botere banaketaren printzipioa errespetatzeko izan dugun borondatearekin ados.

Era berean, “informazio-kanala” edo zigor erantzukizunari buruzko informazioa emateko bide bat ezarri da, komunikabide gisa baliatuko dena, EAJ-PNVren barne organoei edozein momentutan gerta daitezkeen arau hauste zigorgarriak jakinarazteko, behar besteko egiaztapen edo ikerketa prozesuak hastera begira eta behar besteko neurriak hartzeko.

Azkenik, eredia gainbegiratzeko eta eguneratzeko mekanismoak aurreikusi da, Alderdiaren bidea jarraitzeko borondatearekin egin delarik. Beraz, unean uneko aldaketetara eta beharizantetara moldatzeko gai izan behar du.

Laburbilduz, arestian esandakoaren arabera, indarrean dagoen Zigor kodearen 31. bis artikulua 2. Idatz.zatiko lehen paragrafoan ezarritakoa bete da, eta horren arabera antolatze eta kudeatzeko eredia garatu eta ezarri da, delituei aurrea hartzeko behaketa eta kontrol neurriak barne, bai eta delitu hauek nabarmen murrizteko ere .



5.- PERTSONA JURIDIKOARENTZAT ERANTZUKIZUN PENALA AURREIKUSTEN DUTEN DELITUAK.

Bi suposizio orokor daude, zeinetan pertsona juridiko batek erantzukizun penala izan dezakeen :

- Pertsona juridikoaren izenean edo haren kontura, lege ordezkariak edo erabakiak hartzeko baimenduta dauden pertsonak edo antolatze eta kontrola egiteko ahalmena duten arduradunek eginiko delituak.
- Egintza sozialak egikaritzean eta hauen kontura, aurrekoen kontrol/agintepean dauden pertsonak eginiko delituak, kontrola egitea dagokien pertsonak jarduera gainbegiratzeko, behatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak larriki urratu dituztelako.

Orain bai, delituzko jarduera horrek, pertsona juridikoak erantzukizun penala izan dezan, haren mesedetan eginikoa beharko du izan, zuzenean edo zeharka.

Beste alde batetik, erantzukizun penala pertsona juridikoari exijitu ahal izango zaio Zigor Kodean aurreikusitako delituei dagokien aldetik. Delituen katalogo itxi bat dago eta haietarako aurreikusi da pertsona juridikoen erantzukizun penala, eta ondorengoak dira (horietako batzuk berriak dira eta 1/2015 Lege Organikoak jasotzen ditu):



- Giza organoen trafiko delitua eta legeaz kanpoko transplante delitua (156. bis artikulua)
- Gizakien salerosketa delitua (177. bis artikulua)
- Adingabeen prostituzioarekin eta ustelkeriarekin zerikusia duten delituak (187.etik 189.era doazen artikulua)
- Sekretuak deskubritu eta hedatzearen delitua (197.eta 197. quinquies artikulua).
- Maula delituak (248.etik 251.era doazen delituak)
- Beteazpena zapuztearekin zerikusia duten delituak (257.etik 258. ter-era doazen artikulua)
- Kaudimen-gabezia zigorgarriarekin zerikusia duten delituak (259.etik 261.era doazen artikulua)
- Kalte Informatikoekin zerikusia duten delituak (264.etik 264. quarter-era doazen artikulua)
- Jabetza intelektualarekin, merkatuarekin eta kontsumitzaileekin zerikusia duten delituak (270.etik 286.era doazen artikulua)
- Negozioetan eman daitekeen ustelkeriarekin zerikusia duten delituak (286. bis-etik 288.era doazen artikulua)
- Kapitalak zurtzearekin zerikusia duten delituak (301. eta 302. artikulua)
- **Alderdi politikoan legeaz kanpoko finantzaketarekin zerikusia duten delituak** (304.bis eta 304. artikulua)
- Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituak (305.etik 310.era doazen artikulua)
- Langileen eskubideen kontrako delituak (311.etik 318.era doazen artikulua)



- Gizakien salerosketa edo pertsonen immigrazio klandestinoak (318. bis artikulua)
- Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren kontrako delituak (319.artikulua)
- Baliabide naturalen eta ingurumenaren kontrako delituak (325.etik 217.era doazen artikulua)
- Erradiazio ionizatzailearekin zerikusia duen delitua (343. artikulua)
- Hondamen delitua (348. artikulua)
- Droga-trafiko delituak (368. eta 368. artikulua)
- Mailegu eta zor txartelak eta bidaiak faltsutzearekin zerikusia duten delituak (399. bis artikulua)
- Funtzionario-eroskeria delituak (419.etik 427.era doazen artikulua)
- Influentzia-trafiko delituak (428.etik 430.era doazen artikulua)
- Konstituzioak bermatzen dituen funtsezko eskubideen eta askatasun publikoen kontra eginiko delituak (510. artikulua).
- Terrorismo jardueretarako funtsak lortzearekin zerikusia duen delitua (576. bis artikulua).

Figura horietako hainbat EAJ-PNVren jarduerekin zerikusirik ez duten arren, bere xede eta dinamika sozialaren eraginez (esate baterako ia ezinezkoa da Alderdi Barruan legez kanpoko giza organoen trafiko eta transplante delitua gertatzea), hainbat gauza daude Alderdiari kalte egin diezaioketenak, besteak beste sekretuak deskubritzea eta hedatzea, kalte informatikoak, langileen eskubideen kontrako delituak, jabetza intelektual eta industrialarekin zerikusia duten delituak, Gizarte Segurantzaren



kontrako delituak eta Konstituzioak bermatzen dituen oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen kontrako delituak, eta bereziki legez kontrako finantzaketa delitua.

6.- EAJ-PNVREN JARDUEREN BARRUAN EMAN DAITEZKEEN DELITUAK.

EAJ-PNVren jarduerak ,funtzionamendua eta bere jarduera esparrua kontuan hartuta, ondoren aztertuko dira alderdiaren izaera eta jarduera kontuan hartuta bere barne eta kanpo funtzionamenduan eman daitezkeen delitu tipoak .

1. Isilpeko gaiak agerian uztean egin daitezkeen delituak (Zigor Kodearen 197.etik 197. quinquies-era doazen artikuluak).
2. Maula delitua (Zigor Kodearen 248.etik 250.era doazen artikuluak).
3. Betearazpena zapuztearekin zerikusia duten delituak (Zigor Kodearen 257.etik 258.ter-era doazen artikuluak).
4. Kaudimen-gabezia zigorgarria delitua (Zigor Kodearen 259.etik 261.era doazen artikuluak).
5. Kalte informatikoekin zerikusia duten delituak (Zigor Kodearen 264tik 264 quater-era doazen delituak).
6. Negozioetako ustelkeria delituak (Zigor Kodearen 286. bis-etik 288.era doazen artikuluak)).
7. Kapital-zuriketa delituak (Zigor Kodearen 301. eta 302. artikuluak).
8. Alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketarekin zerikusia duten delituak (Zigor Kodearen 304. bis eta 304 artikuluak).



9. Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituak (Zigor Kodearen 305.etik 310.era doazen artikulua)
10. Langileen eskubideen kontrako delituak (Zigor Kodearen 311.etik 318.era doazen artikulua)).
11. Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren kontrako (Zigor Kodearen 319 artikulua) eta Ingurumenaren kontrako delitua (325.artikulua)
12. Funtzionario-eroskeria delituak (Zigor Kodearen 419.etik 427.era doazen artikulua)
13. Influentzia-trafiko delitua (Zigor Kodearen 429 artikulua).
14. Konstituzioak bermatzen dituen funtsezko eskubideen eta askatasun publikoen kontra eginiko delituak (Zigor Kodearen 510. artikulua).

7.- PREBENTZIO, ZAINZA ETA KONTROLERAKO INDARREAN DAUDEN NEURRIAK.

Zigor Kodearen 31. bis artikuluko 2. zenbakiko 1. idatz-zatian ezartzen da pertsona juridikoak erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko direla *“baldin eta delitua gertatu aurretik, mota horretako delituak prebenitzeko edo horrelako delituak egiteko arriskua nabarmen txikiagotzeko antolaketa-eta kudeaketa-eredua osatuta eta ezarrita bazuten”*.



EAJ-PNVk gaur egun indarrean dauzka zaintza eta kontrola egiteko hainbat neurri, delituak prebenitzeko balio dutenak.



7.1. ERAKUNDEEN KONTROLA.

7.1.1. 6/2002 Lege Organikoa, ekainaren 27koa, Alderdi Politikoei buruzkoa.

Lege honen arabera Alderdi Politikoak dira organo konstituzionalak ez diren entitateak, elkarte izaerako ente pribatuak dira, konstituzioaren egituraren parte direnak; lehen mailako garrantzi konstituzionala duten eginkizunak betetzen dute eta bigarren izaera daukate dotrinak bere garrantzi konstituzionalari eta 1978ko Konstituzioaren aldetik beren berme instituzionalari buruzko erreferentziekin laburbiltzen duena.

Alderdi politikoak desegite edo etete judiziala burutzeko prozedura bereziaren mende daude, Alderdi Politikoei buruzko Lege Organikoaren 10. Artikuluan jasota dagoena.

Arau horrek ezartzen du alderdi bat desegin ahal izango dela edo, hala denean, eten, horren kideek halaxe erabaki dutelako, alderdiko estatutuetan ezarri arrazoiak edo prozedurak kontuan hartuta, eta agintari judizial eskudunak halaxe erabaki dutelako.



Desegiteak ondoreak sortuko ditu Alderdi Politikoen Erregistroan horren gaineko idatz oharra egiten denetik, aurretiaz alderdi politikoak edo desegitea agindu duen organo judizialak hori jakinarazita.

Jurisdikzio-organo eskudunak ondoko kasuetan erabakiko du alderdi politiko bat desegitea:

- a) Zigor Kodean zein egoera tipifikatu zilegi ez den elkarte gisa eta alderdi politikoa egoera horretan dagoenean.
- b) Etengabe, behin eta berriro eta modu larrian urratzen duenean barne-egitura eta jardunbide demokratikoa izateko betekizuna, lege organiko honen 7 eta 8 artikuluek ezarritakoaren arabera.
- c) Behin eta berriro eta modu larrian printzipio demokratikoak urratzen dituztenean edota jarduera horrek xedetzat duenean askatasunen araubidea urratzea edo haustea, edota sistema demokratikoa eragotzi edo ezabatzea.

Alderdi politikoa eten dadin, zigor Kodeak xedatu behar du hori. Kautela-neurri gisa erabaki ahal izango da alderdi politikoa etetea, Prozedura Kriminalaren Legeak xedatutakoaren arabera, edo Alderdi Politikoen Lege Organikoak ezarritakoaren arabera.

Alderdi politiko bat Zigor Kodean legez kanpoko elkarte osatzean eginiko delituengatik desegite judiziala gertatzen denean, zigor arloko agente juristikzionalaren ardurapekoa izango da Prozedura Kriminalaren Legean eta Zigor Kodean ezarritakoaren arabera.



Desegite Judizialaz gain, Alderdi Politikoen Lege Organikoaren 11. artikulua araberan, alderdi politikoa legez kanpo uzteko eta desegiteko eskumena dute Espainiako Gobernuak eta Ministerio Fiskalak.

Halaber, Diputatuen Kongresuak edo Senatuak Gobernuari eska diezaioke alderdi politiko baten lege-aurkakotasunaren inguruko eskabidea egitea. Gobernuak nahitaez egin beharko du lege-aurkakotasunaren inguruko eskabidea, Ministroen Kontseiluak aurretik hala erabakita, esandako Lege Organikoan jasotako zioengatik. Erabaki horren izapidetze bat etorriko da, hurrenez hurren, Diputatuen Kongresuko eta Senatuko mahaiek ezarri prozedurarekin.

Kontrol judizialaz eta alderdi politiko bat eteteko adierazpen judizialaz gain, finantzaketari dagokionez, kontrol eta auziperatze eginkizuna ematen zaio Kontuen Epaimahaiari, Alderdi Politikoen Lege Organikoaren 13. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Kontuen Epaimahaiaren kontrola egingo da eta alderdi politikoei egiaztatu beharko dute jasotzen dituzten funts publikoak indarrean dagoen araudiaren arabera erabiltzen dituztela eta beren helburuak betetzen dituztela.



Ondore honetarako, alderdiek urteko kontu bateratuak behar bezala formalizatuta bidali beharko dizkiote Kontuen Epaimahaiari.

7.1.2. 8/2007 Lege Organikoa, uztailaren 4koa, alderdi politikoek finantzaketari buruzkoa.

Bere helburu nagusia da alderdien jarduera ekonomikoaren nahikotasuna, erregulartasuna eta gardentasuna bermatzea.

Halaber, esandako Lege horren V. Tituluaren xedea da fiskalizazio eta kontrol lana egitea, alderdi barruan zein kanpoko esparruan.

Helburu horrekin, 15. artikulua ezartzen du alderdi politikoek barruko kontrola egiteko sistema bat aurreikusi beharko dutela eskubide eta derrigor ekonomikoak izango dituzten ekitaldi eta agiri guztiak behar bezala kontu hartzeko eta kontabilizatzeko, bere estatutuen arabera. Horren ondorioz egingo den txostena aurkeztuko da Kontu Auzitegiari aurkeztu beharreko agiri guztiekin.



Kanpoko kontrolari dagokionez, 16. artikuluan ezarritako guztia dagokio Kontuen Auzitegiari, dagokien Estatutueta Autonomia Erkidegoen kanpoko kontrola egiteko organoei autonomietako hauteskunde prozesuak fiskalizatzeko eskuduntzen kalterik gabe.

Kontuen Auzitegiak, edozein kasutan, diru-laguntza publikoren bat jasoko duten alderdi politikoen kontuak fiskalizatuko ditu. Gainerako alderdi politikoei dagokienez, Kontuen Auzitegiak egoki joko dituen jarduera fiskalizatzaileak egingo ditu bere jarduera planetan ezarritakoaren arabera. Kontrol berbera egingo da alderdi politikoen baliabide publiko eta pribatuen legezotasunaren inguruan, egingo dituzten jarduera ekonomiko-finantzarioen eta beren jarduera ekonomiko-finantzarioa bere izaeraren arabera exijituko zaizkion printzipioetara eginiko moldatze lanean.

Kontuen Auzitegiak, alderdi politikoei aurkeztu behar dituzten agiriak jasotzen dituenetik eta sei hilabeteko epean, txosten bat egingo du aurreko idatz-zatian azaldutakoaren inguruko irizpidea emanez eta, bere kasuan, berariaz adieraziko ditu antzemandako arau hausteak edo praktika irregularrak.



Txosten hori Gorte Nagusietara eramango da eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.2. BARNE ARAUDIA.

- Aberri Estatutuak.
- Bizkaiko Herrialde Estatutuak.
- Gipuzkoako Herrialde Estatutuak.
- Arabako Herrialde Estatutuak.
- Nafarroako Herrialde Estatutuak.
- Iparraldeko Herrialde Estatutuak.
- Hauteskundeei buruzko Aberri Araudia.
- Diziplina Araudia.
- Aberri Epaimahaiaren Araudi.
- Aberri Berme eta Zaingo Batzordearen Araudia.
- Batzar Nagusiaren Araudia.
- Aberri Batzarraren Araudia.
- Euzkadi Buru Batzarraren Araudia.
- Legebiltzar Taldeen Araudia.



8. DELITU IZAN DAITEZKEENAK ETA PREBENTZIO NEURRIAK EAJ-PNV-REN BAITAN.

EAJ-PNVri delituak prebenitzeko eta legeak betetzeko orduan indarrean dauden eta aplikagarri zaizkion neurrien kalterik gabe, Alderdiaren barne araudian jasotzen dira delituak prebenitzeko hainbat neurri . Prebentzio neurri batzuk ezarri dira dagokion delituari aurrea hartu ahal izateko. Sakondu gabe eta, beraz, “numerus clausus” delakorik ezarri gabe, ondorengo neurriak ezartzen dira, prebenitzen dituzten neurrien arabera multzokatuta, eta Alderdiaren jarduera arlo guztiei eragiten dietenak.

8.1. Isilpeko gaiak agerian uztean egin daitezkeen delituak (Zigor Kodearen 197.etik 197.quinquies-era doazen artikulua).

Jokaeren deskribapena:

- Paperak, gutunak, posta elektronikoko mezuak edo beste edozein agiri nahiz efektu pertsonal harrapatzea, telekomunikazioen artean esku sartzea edo trikimailu teknikoak erabiltzea, soinua, irudia edo beste edozein komunikazio-seinale entzun, igorri, irarri edo kopiatzea, baimenik gabe besteren baten sekretuak agerrarazteko edo bere intimitatea urratzeko.



- Baimenik gabe, beste baten kalterako, izaera pertsonaleko edo familiako inoren datu erreserbatuak harrapatu,erabili nahiz aldatzea, betiere erregistraturik daudenean fitxategi edo euskarri informatiko,elektroniko zein telematikoetan,edo beste edozein motatako artxibo nahiz erregistro publiko edo pribatuetan. Era berean, edozein bide erabilita datu erreserbatuak lortzea, baimenik gabe jokatzeko badu, eta datu horiek aldatzen edo erabiltzea, datuen titularraren edo beste inoren kalterako.
- Aurreko paragrafoetan aipatutako datu zein egitateak edo hartutako irudiak hedatzea edo beste inori ezagutaraztea edo lagatzea.
- Hirugarrenei ematea, erakustea edo lagatzea, dagokion pertsonaren baimenik gabe, pertsona haren irudiak edo ikus-entzunezko grabazioak etxebizitza barruan edo hirugarren begiradatik kanpo egon daitekeen lekuan bere baimenarekin hartu direnak, irudi horiekin pertsona honen intimitasun pertsonala larriki kaltetzen duenean.
- Beste pertsona fisiko edo juridiko bati informazio sistema osora edo zati batera sartzeko aukera emateari baietza ematea edo sistema horretan mantentzea baztertzeko eskubide zilegi duenaren borondatearen kontra, edozein baliabide edo prozedura erabiliz, hori eragozteko ezarri diren segurtasun neurriak urratuz eta beharrezko baimena jaso gabe.
- Behar bezala baimendurik egon gabe,gailu edo tresna teknikoak erabiliz,informazio-sistema batetik datozen edo informazio-sistema batera doazen datu informatiko ez-publikoen igorpenen artean -datuen igorpen elektromagnetikoak barne- esku sartzea.



- Behar bezala baimendurik egon gabe honako hauetakoren bat ekoizten duenari, berak erabiltzeko eskuratzen duenari edo inportatzen duenari, edota beste edozein modutara hirugarrenei ematen dienari, aurreko paragrafoetan zehaztutako delituak egiten laguntzeko asmoz:

- a) programa informatiko bat, nagusiki delitu horiek egiteko sortua edo egokitua;edo
- b) ordenagailu-pasahitz bat, sarbide kode bateko antzeko datuak, informazio sistema bateko datu guztietan edo batzuetan sartzen laguntzen dutenean.

8.2. Prebentzio Neurriak.

A) Oro har, pertsonen eta beren intimotasuna merezi duten errespetua gordetzea eta bereziki Batzarretan eta EAJ-PNVren beste organoetan jorratutakoa isilpean gordetzea (Aberri Estatutuen 13.11 artikulua)

B) Debekatuta dago EAJ-PNVren diziplinaren aurka doazen edo iritzi publikoaren aurrean haren irudiari kalte egiten dioten adierazpen edo ekintza publikoak egitea (Aberri Estatutuen 14. Artikulua).

C) Debekatuta dago Batzarretan eta EAJ-PNVren beste organoetan aztertu diren gaien inguruan gorde beharreko isilekotasuna urratzea (Diziplina araudiaren 10. Eta 11.2.f artikulua).



- D) Debekatuta dago espioitzan aritzea edo grabaketak egitea edo EAJ-PNVren irudi ona zikintzeko albisteak zabaltzea** barne kargudunak, herri kargudunak edo/eta alderdikideak **iraintzeko edo kalumniatzeko** (Diziplina Araudiaren 11. Artikulua).
- E)** Debekatuta dago alderdikideen edo organoen agiriak hedatzea, haiek baimena eman gabe (Diziplina Araudiaren 11.2 artikulua) .
- F)** Alderdikide bakoitza derrigortuta dago EAJ-PNVk datuak, programak edo sistema informatikoak babesteko ezarriko dituen neurriak errespetatzera.
- G)** Datu pertsonalak babesteko legeak, arauak eta jarraibideak hitzez hitz bete behar dira. Datu pertsonaletan sartzeari, datu hauek baliatzea eta transmititzea behar besteko baimenekin eta kontrol neurriekin baino ezin izango dira gauzatu. **Debekatuta dago profil ofizialak baliatzea inoren izen ona zikintzeko edo pertsonen intimitasunaren eta ohorearen kontra egiten duten edukiak zabaltzeko.**
- H)** Alderdikide edo/eta langileen intimitasuna babesten eta errespetatzen da. Errespetu honek derrigortzen du, berariaz baimena ematen denean salbu, ekipo informatikoetan, agiri edo efektu pertsonaletan edo pertsonaren komunikazio sistemetan ez sartzera.
- I)** **Debekatuta dago EAJ-PNVren posta elektronikoko kontuetan hutsegite bategatik jaso diren mezuak hedatzea.**
- J)** **Osorik edo zati batean isileko jo daitekeen informazioa gordetzen duen edozein agiri, objektu, material, substantzia, agiri elektronikoa edo**



beste edozein euskarri ikusteko eskubidea pertsona kopuru mugatu bati mugatzea (enpresako sekretuen 1/2019 Legearen 15. Artikulua).

8.3. Iruzur egitearekin zerikusia duten delituak (Zigor Kodearen 248 a eta 251 bis artikulua).

Jokaeren deskribapena:

- Irabaziak lortzeko asmoz, beste bati okerra eragiteko engainu nahikoa erabiltzea, bere buruaren edo beste baten kaltean xedatze-egintzak gauzatzera induzituz.
- Irabazia lortzeko asmoz edozein manipulazio informatikoz edo horren antzeko trikimailuz baliatuta, nolana hiko ondare-aktibo adostasunik gabe beste baten kaltean eskualdatzea lortzen dutenak.
- Ordenagailu-programak fabrikatu, sartu, eduki edo erraztea, programa horien helburu zehatza bada artikulu honetan ezarritako maulak egitea.
- Mailegu edo zor txartelak edo bidai txekeak, edo berauetan jasotzen diren datuak erabilia, edonolako eragiketak egitea hirugarrenen edo titularren baimenik gabe.
- Gauza higigarri edo higiezin baten gaineko xedatze ahalmena, inoiz izan ez duena edo jadanik egikaritu duena, bere buruarentzat faltsutasunez hartuz, gauzok beste bati berorren edo beste inoren kaltean besterentzea, kargatzea edo errentan ematea.
- Gauza higigarri edo higiezina xedatzea, gauza honek izan dezakeen zama ezkatatuta, edo, zamarik gabea besterendu denean, berriro zamatzea edo



berriz ere besterentzea hartzaileari behin betiko eskualdatzea egin baino lehen, honen edo hirugarrenen kaltetan.

- Beste baten kaltetan itxurazko kontratu bat ematea.

8.4. Prebentzio neurriak.

A) Alderdia derrigortuta dago amaitutako ekitaldiko kontuak eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua Aberri batzarrari ekitaldiko lehen hiru hilabeteen barruan aurkeztea, onar ditzan. EAJ-PNVren urteko kontu bateratuak formulatzea, Estatuko Kontuen Epaimahaiari aurkezteko. Kontularitza, Diruzaintza, Inbentario eta Balantze liburuak eramatea, zeintzuen edukia arau bidez ezarriko den, eta une oro Alderdiaren egoera finantzarioa ezagutzeko aukera eman dezaten (Aberri Estatutuen 64. artikulua).

B) Euzkadi Buru Batzarrak Ohiko Aberri Batzarrean ekitaldi bakoitzaren emaitza ekonomiko-finantzarioen berri emango du, Kontu Aztertzaileen Batzordeak egin beharreko txostena aurkeztu ondoren; eta Aberri Batzarrean aurkeztuko du urteko aurrekontua, batzarrak onar dezan. Kontu ematean aurkeztuko dira urteko galera eta irabaziak, Euzkadi Buru Batzarraren egoera balantzea eta Herrialde Batzarrena. Xede honekin, Herrialde Buru Batzarrek ekitaldiko lehen bi hilabeteen barruan eta Ohiko Aberri Batzarra ospatu baino lehen, Euzkadi Buru Batzarrari helarazi beharko dizkiote beren herrialdeko Uri Erakundearen urteko kontuak. Herrialde Buru Batzarren urteko kontuekin ere bidaliko dira Herrialde bakoitzeko Kontu-aztertzaileek egin beharreko txostenak. Euzkadiz Kanpoko Erakundeek eta Euzko Gaztedik urteko kontuak Euzkadi Buru



Batzarrari bidali beharko dizkiote urteko lehen bi hilabeteen barruan. Uri Erakundeek beren kontuak onartu eta Herrialde Buru Batzarrari bidali beharko dizkiote ekitaldiko lehen hilabetearen barruan. (Aberri Estatutuen 109. artikulua).

C) Uri eta Herrialde Erakundeek, Aberri Erakundeak eta, beren kasuan, Euzkadiz Kanpoko Erakundeek eta EGIk beren azpian dauden organismo, erakunde, fundazio, elkarte eta sozietateen urteko kontuak eskatu ahalko dituzte. Kontu hauek derrigorrez bidali beharko dira, ekitaldia itxi eta ondorengo hiru hilabeteko epe barruan, mendekotasun edo lotura organikoa denean edo/eta indarrean dagoen legeriak hala eskatzen duenean. (Aberri Estatutuen 109. artikulua 4. idatz-zatia).

D) Euzkadi Buru Batzarra, EAJ-PNVren organo gorena da, eta bera da erantzule subsidiarioa Estatuko Kontuen Epaimahaiaren aurrean, eta bertan aurkeztuko ditu Alderdiaren egoera finantzario guztiak eta ekitaldi ekonomiko bakoitzeko urteko kontuak, derrigorrezko baterakuntza mailan eta legez ezarritako epeen barruan. (Aberri Estatutuen 110.1 artikulua).



- E)** Euzkadi Buru Batzarrarena izango da bere webgunean gardentasun eta gobernu onaren inguruan Alderdiak bere jarduera egitasmoan ezarriko dituen edukiak argitaratzeko erantzukizuna (Aberri Estatutuen 110. artikulua 2. idatz-zatia).
- F)** Arau hauste larrian eroriko dira eta dagokion zigorra ezarriko zaie konfiantzaz baliatuta, ez dagokien karguaz jabetzen direnei edo beraiei ez dagozkien betekizunak bereganatzen dituztenei (Diziplina Araudiaren 11.2.e artikulua).
- G)** Derrigorrezkoa izango da EAJ-PNVren aurrean alderdikidetzekaria aurkeztean bete behar den inprimakiko datuak ez faltsutzea (Diziplina araudiaren 12.a artikulua).
- H)** Arau hauste oso larria izango da EAJ-PNVren funtsak era desegokian erabiltzea (Diziplina araudiaren 12.h artikulua).
- I)** Kontularitza liburuak,erregistroak eta idazpenak egitea eta jasotzea, behar besteko xehetasunekin eta zorrotasunarekin, EAJ-PNVren aktiboekin eginiko transakzioak eta erabilpenak jasotzeko. Liburu, erregistro eta kontu hauek egin beharko dira egintza ekonomikoak erregistratzeko orduan arauz onartzen diren metodoekin, eta hori egingo da EAJ-PNVren kontularitza kontrolpetik kanpo geratuko diren funtsak erabiltzea prebenitzeko.
- J)** Debekatuta egongo da dirua edo ondasunak erabiltzea edo/eta erabiltzea baimentzea, ondasun eta diru horiek eman zirenaz besteko helbururako.



- K)** Debekatuta egongo da hirugarrenekin edozein kontratu,hitzarmen edo eskaintza izenpetzea edo izenpetzea baimentzea, hitzemandako derrigorak bete ezin direla jakinda.
- L)** Debekatuta egongo da datu bat edo agiri bat faltsutzea, kontratu edo hitzarmen bat izenpetzea lortzeko bada.
- M)** Debekatuta egongo da zerbitzu bat emateko edo jarduera bat betearazteko baldintzen inguruan iruzur egitea edo gezurrak esatea.
- N)** Debekatuta egongo da ondasunak edo dirua erostea edo erabiltzea edo,oro har, kontratatzea, horretarako ahalmena izan gabe edo dagozkion baimenak jaso gabe.
- Ñ)** Derrigorrezkoa izango da kontratazio prozesuetan ahal den gardentasunik handiena eta kalitate eta prezioaren arteko erlaziorik onena lortzea.
- O)** Derrigorrezkoa izango da kontratariei kontratatzeko prozesuetan sartzeko eta parte hartzeko baldintzak erraztea.
- P)** Debekatuta egongo da kontratuetan interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren eta administrazio onaren printzipioen kontrako itunak,klausulak edo baldintzak jasotzea.
- Q)** Derrigorrezkoa izango da iruzurraren, faboritismoaren eta ustelkeriaren kontrako neurri egokiak hartzea, eta kontratazio prozeduretan sor daitezkeen interes gatazkak prebenitu beharko dira lehiaketaren edozein distortsio saihestera begira. Ondore hauetarako, interes gatazka kontzeptuan sartzen da kontratazio prozesuan parte hartzen duen langileria, prozesu honen emaitzan eragin dezakeena,interes finantzario,ekonomiko edo



pertsonala izanik, kontratatzeke prozesuan bere inpartzialtasuna eta independentzia baldintza dezakeenean.

R) Derrigorrezkoa izango da neurri egokiak hartzea alde aurretik baldintza teknikoek pleguak edo kontratua prestatzeko lanak egiten aritu diren enpresek, edo kontratatzeke prozedura prestatzeko garaian kontratua egin behar duen organoari aholkularitza eman dioten enpresek, kontratatzeke prozesuetan, lehiaketa askea faltsutu ez dezaten bermatzeko.

S) Kontratatzeke debekua.

Debekatuta egongo da pertsona edo erakundeekin kontratua izenpetzea, baldin eta ondorengo inguruabarren bat ematen bada:

1) Epai irmo bidez ondorengo delitu bat egotzita zigortu izana: terrorismoa, erakunde, talde kriminal edo legearen kontrako elkartearen osatzea edo kide izatea, alderdi politikoaren lege kanpoko finantzaketa, gizakien salerosketa, ustelkeria negozioetan, influentzia-trafikoa, funtzionario-eroskeria, maula, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituak, langileen eskubideen kontrako delituak, prebarikazioa, bidegabeko erabiltzea, funtzionarioek debekatuta dauzkaten negozioak, kapitalak zuritzea, lurraldearen ordenamenduari eta hirigintzarekin, ondare historikoaren eta ingurumenaren babesarekin zerikusia duten delituak, edo gaigabetasungabetze berezia lanbide, ogibide, industria edo merkataritzara jardunerako



Kontratatzeko debekua izango dute zigor kodearen arabera erantzule izendatzen diren pertsonak eta haien administratzaile edo ordezkariak egitez edo zuzenbidearen arabera dienak, beren kargua edo ordezkaritza indarrean dagoenean eta kargua utzi arte, idatz-zati honetan adierazitako egoeran egongo dira.

2) Epai irmo batez lanbide alorrean eginiko arau hauste larriagatik zigortu izana bere osotasuna auzitan jartzeagatik, merkatuko diziplina urratzeagatik, lehiakortasuna faltsutu izanagatik, desgaitasuna duten pertsonak eta atzerritarrak lan munduratzeko, dagokien aukeren berdintasuna aitortzeko eta ez diskriminatzeko eskubidea urratzeagatik, indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin ados, edo ingurumen arloko arau hauste oso larria egotzita, edo lan arloko edo gizarte arloko arau hauste oso larriagatik, 5/2000 Legegintzako Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Gizarte Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bategina Onartzen duenarekin ados.

3) Borondatezko konkurtso- adierazpena eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratuak izana, konkurtso-egoeran deklaratuak izana, konkurtso honetan hitzarmen batek eraginkortasuna hartu duenean salbu edo auzitegitik kanpo ordaintzeko akordio baten espedientea hasi denean salbu, edota esku-hartze judizialaren menpe dagoenean edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, gaitasungabetuak izan direnean, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako gaitasungabetze-aldia amaitu gabe.



4) Indarrean dauden xedapenen arabera zerga alorrean edo Gizarte Segurantzian ezarrita dauden derrigorak bete gabe uztea, arauz ezarritako terminoetan, edo 50 langiletik gorako enpresetan, langileen ehuneko 2a gutxienez desgaitasuna duten pertsonak izan daitezzen ezarrita dagoen baldintza ez betetzea, 1/2013 Errege Dekretu Legegilearen 42. artikulua, azaroaren 29koaren arabera, zeinen bidez onartu den desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta bere gizarteratzeari buruzko Orokorraren Testu Bategina, arauz ezarritako baldintzen arabera; edo 250 langiletik gorako enpresetan, berdintasun planik ez izatea, martxoaren 22ko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan ezarritakoaren ados.

Zerga alorreko araudiak edo Gizarte Segurantzak ezartzen dituen derrigorak betetzeari dagokionez, ordainketak egunean daudela ulertuko da zorrak atzeratuta edo zatituta badaude edo etetea adostu denean, zor horiek aurkaratzearen ondorioz.



Desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostu guztien ehuneko 2ko erretserba kuota betetzen dela eta idatz-zati honetako lehen paragrafoan aipatzen den berdintasun plana izateko derrigorra betetzen dela egiaztatzea, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egingo da.

5) Informazio faltsua eman izana erantzukizunpeko adierazpena egiterako orduan edo bere ahalmenari eta kaudimenari buruzko bestelako datu batzuk ematerako orduan.

6) Zigor administratibo irmoa ezarrita, kontratatzeke debekuaren pean egotea, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 legean edo abenduaren 17ko Tributuen Lege Orokorrari buruzko 58/2003 Legean ezarritakoaren arabera.

Kontratatzeke debeku hau aplikatzeari utziko zaio kontratatzeke organo batek egiaztatzen duenean enpresak dagozkion ordainketak eta derrigorak bete dituela edo akordio loteslea adostu duenean zor dituen kopuruak ordaintzera begira, metatu diren interesak edo ezarritako isunak barne.



8.5. Betearazpena zapuztearekin zerikusia duten delituak (Zigor Kodearen 257.etik 258. ter-era doazen artikulua):

Jokaeren deskribapena:

- Hartzekodunen kaltean bere ondasunak ostentzea.
- Helburu berarekin, ondarea xedatzeko edo betebeharrak sorrarazteko edozein egintza gauzatzea, baldin eta egintza horrek luzatu, zailago bihurtu edo eragozten badu enbargo baten edota betearazpen nahiz premiamenduko prozedura baten eragingarritasuna, betiere enbargoa edo epaiketako nahiz epaiketarik kanpoko prozedura edo Administrazioarena hasita egonik edo horren hasiera aurreikusteko modukoa izanik.
- Xedatze-egintzak egitea, ondarea txikiagotzeko betebeharrak egitea edota bere ondareko elementuak betearazpen eraginkorraren mendekoak, beste era batean ezkutatzea, delitu baten ondoriozko erantzukizun zibilak ordaintzea saihesteko, bai delitu egin badu, bai delituaren erantzulea bada.
- Betearazpen judizialaren edo administratiboaren prozedura batean agintaritzari edo funtzionarioei ondasunen edo ondarearen zerrenda osatugabea edo gezurrezkoa aurkeztea, hori egitean geroratu, oztopatu edo eragotzi egiten badu hartzekodunari egin beharreko ordainketa.
Era berean, zordunak, hala eskatzen zaion arren, aurreko paragrafoan aipatutako ondasunen edo ondarearen zerrenda ematen ez duenean.
- Agintaritza publikoak enbargatutako ondasunak, gordailuan utzitakoak, baimenik gabe erabiltzea.



8.6. Prebentzio neurriak.

A) Amaitutako ekitaldiko kontuak eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua Aberri Batzarrari ekitaldiko lehen hiru hilabeteen barruan aurkeztea, onar ditzan. EAJ-PNVren urteko kontu bateratuak formulatzea, Estatuko Kontuen Epaimahaian aurkezteko. Kontularitza, Diruzaintza, Inbentario eta Balantze liburuak eramatea, zeintzuen edukia arau bidez ezarriko den, eta une oro Alderdiaren egoera finantzarioa ezagutzeko aukera eman dezaten (Aberri Estatutuen 64. Artikulua).

B) Euzkadi Buru Batzarrak Ohiko Aberri Batzarrean ekitaldi bakoitzaren emaitza ekonomiko-finantzarioen berri emango du, Kontu-aztertzaileen Batzordeak egin beharreko txostena aurkeztu ondoren; eta Aberri Batzarrean aurkeztuko du urteko aurrekontua, batzarrak onar dezan. Kontu ematean aurkeztuko dira urteko galera eta irabaziak, Euzkadi Buru Batzarraren egoera balantzea eta Herrialde Batzarrena. Xede honekin, Herrialde Buru Batzarrek ekitaldiko lehen bi hilabeteen barruan eta Ohiko Aberri Batzarra ospatu baino lehen, Euzkadi Buru Batzarrari helarazi beharko dizkiote beren herrialdeko Uri Erakundearen urteko kontuak. Herrialde Buru Batzarren urteko kontuekin ere bidaliko dira Herrialde bakoitzeko Kontu-aztertzaileek egin beharreko txostenak. Euzkadiz



Kanpoko Erakundeek eta Euzko Gaztedik urteko kontuak Euzkadi Buru Batzarrari bidali beharko dizkiote urteko lehen bi hilabeteen barruan. (Aberri Estatutuen 109. artikulua).

C) Uri eta Herrialde Erakundeek, Aberri Erakundeak eta, beren kasuan, Euzkadiz Kanpoko Erakundeek eta EGIk beren azpian dauden organismo, erakunde, fundazio, elkarte eta sozietateen urteko kontuak eskatu ahalko dituzte. Kontu hauek derrigorrez bidali beharko dira, ekitaldia itxi eta ondorengo hiru hilabeteko epe barruan, mendekotasun edo lotura organikoa denean edo/eta indarrean dagoen legeriak hala eskatzen duenean (Aberri Estatutuen 109. Artikuluaren 4. idatz-zatia).

D) Euzkadi Buru Batzarra EAJ-PNVren organo gorena da, eta berak erantzuten du Estatuko Kontuen Epaimahaiari, eta bertan aurkeztuko ditu ekitaldi ekonomiko bakoitzeko urteko kontuak, derrigorrezko baterakuntza mailan eta legez ezarritako epe barruan (Aberri Estatutuen 110.1 artikulua).

E) Euzkadi Buru Batzarrarena izango da bere web gunean gardentasun eta gobernu onaren inguruan Alderdiak bere jardura egitasmoan ezarriko dituen edukiak argitaratzeko erantzukizuna. (Aberri Estatutuen 100 artikulua, 2. idatz-zatia).



- F)** Arau hauste oso larria egotziko zaio konfiantzaz baliatuta, ez dagokion karguaz jabetzen denari edo berari ez dagozkion funtzioak bereganatzen dituenari (Diziplina Araudiaren 11.2.e artikulua). Ez dugu ahaztu behar engainua dela maula delituaren ezaugarri bat.
- G)** Derrigorrezkoa da EAJ-PNVren alderdikidetze-eskaria aurkeztean bete behar den inprimakiko datuak ez faltsutzea (Diziplina Araudiaren 12.a artikulua)
- H)** Oso arau hauste larritzat joko da EAJ-PNVren funtsak era desegokian erabiltzea (Diziplina Araudiaren 12.h artikulua).
- I)** Kontularitza liburuak,erregistroak eta idazpenak egitea eta jasotzea, behar besteko xehetasunekin eta zorrotasunarekin, EAJ-PNVren aktiboekin eginiko transakzioak eta erabilpenak jasotzeko. Liburu, erregistro eta kontu hauek egin beharko dira egintza ekonomikoak erregistratzeko orduan arauz onartzen diren metodoekin, eta hori egingo da EAJ-PNVren kontularitza kontrolpetik kanpo geratuko diren funtsak erabiltzea prebenitzeko
- J)** Alderdikideen derrigorra da etikaren kontrako praktikak burutzea eta edozein kasutan saihestea (ustelkeria, eroskeria edo estortsioa,eta abar) EAJ-PNVren mesederako edo euren mesederako.
- K)** Debekatuta dago EAJ-PNVrenak diren ondasunak, higigarriak edo higiezinak, edo eskubideak saltzea, zamatzea,ezkutatzea,desagerraraztea,lagatzea edo ematea, ezta aldi baterako ere, horretarako ahalmena izan gabe edo behar besteko baimenak jaso gabe.



- L)** Debekatuta dago EAJ-PNVren ondasun higigarri edo higiezin baten gaineko enbargo baten edo betearazpen prozedura edo premiamendu judizial edo administratibo baten eraginkortasuna geroratzea, eragozteia edo oztopatzea.
- M)** Debekatuta dago hartzekodun baten mesedetan aritzea, lehenago eman den harremanengatik, aurretik kobratzeko eskubideak dituen beste baten kaltetan.
- N)** Derrigorrezkoa da kontratazio prozesuetan ahal den gardentasunik handiena eta kalitate-prezio erlaziorik onena lortzea.
- Ñ)** Derrigorrezkoa da kontratazio prozesuetan kontratariei sartzeko eta parte hartzeko baldintzak erraztea.
- O)** Debekatuta dago kontratuetan eta hitzarmenetan interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren edo administrazio zuzenaren printzipioen kontrako klausulak edo baldintzak jasotzea.
- P)** Derrigorrezkoa izango da iruzurraren, faboritismoaren eta ustelkeriaren kontrako neurri egokiak hartzea, eta kontratazio prozeduretan sor daitezkeen interes gatazkak prebenitu beharko dira lehiaketaren edozein distortsio saihestera begira. Ondore hauetarako, interes gatazka kontzeptuan sartzen da kontratazio prozesuan parte hartzen duen langileria, prozesu honen emaitzan eragin dezakeena, interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala izanik, kontratatzeko prozesuan bere inpartzialtasuna eta independentzia baldintza dezakeenean.



Q) Derrigorrezkoa izango da neurri egokiak hartzea alde aurretik baldintza teknikoaren pleguak edo kontratua prestatzeko lanak egiten aritu diren enpresek, edo kontratatzekeko prozedura prestatzeko garaian kontratua egin behar duen organoari aholkularitza eman dioten enpresek, kontratatzekeko prozesuetan, lehiaketa askea faltsutu ez dutela bermatzeko.

R) Kontratatzekeko debekua.

Debekatuta dago kontratuak egitea ondorengo inguruabarren baten mende dauden pertsona edo erakundeekin:

a) ehuneko hogeita bosta, ehun langiletik gorako enpresa edo lantokietan.

b) ehuneko berrogeita hamarra, hamar langiletik gorako eta ehun langiletik beherako enpresa edo lantokietan, edo

c) kopuru guztia, bost langiletik gorako eta hamar langiletik beherako enpresa edo lantokietan.

- Enpresak eskualdatzen direnetan, aurreko kasuan azaldutako prozedurak zeintzuk diren jakinda, beste batek ezarritako baldintza horiei eustea.

- Behin eta berriz, lan baimenik ez duten atzerritarrak enplegatzea.

- Lan baimenik ez duten adingabeak enplegatzea edo haiei lana ematea.

- Lan-indarra trafikagai hartzea.

- Enplegua edo engainuzkoak zein faltsuak diren lan baldintzak eskainiz, pertsonak biltzea edo euren lanpostua uztera bultzatzea, edota lan-baimenik ez duten atzerritarrak enplegatzea, baldin eta enpleguaren baldintzek kalte egiten badiete legezko xedapenen, hitzarmen kolektiboen edota banakako kontratuaren bidez.



- Norbaiten emigrazioa bultzatu edo faboratzea, kontratua edo lanpostua badela itxura eginez, edota horren antzeko beste engainuren bat erabiliz.
- Enplegu publiko nahiz pribatuan, pertsona baten aurka bereizkeria larria sortaraztea pertsonaren ideologia,erlijioa nahiz sinesmenengatik; edo etnia,arraza nahiz nazio batekoa izateagatik; edo sexuagatik, sexu-joeragatik, familia-egoeragatik nahiz gaixotasun edo desgaitasunen bat izateagatik; edo langileen lege-ordezkaria zein ordezkari sindikala izateagatik; edo enpresaren beste langile batzuekin senidetasuna izateagatik edo Espainiako estatuaren hizkuntza ofizialen bat erabiltzeagatik, eta administrazio-agindei edo zehapenaren ondoren, legearen aurreko berdintasun-egoera ez berrezartzea,horrek ondorioztatu dituen kalte ekonomikoak konponduz.
- Laneko arriskuei aurrea hartzeko arauak hautsiz eta legez horretarako betebeharra izanik, beharrezko bideak ez erraztea, langileek euren jarduera egikari dezaten segurtasun eta higieneko neurri egokiekin,betiere langileen bizia,Osasuna edo osotasun fisikoa arrisku larrian jartzen dutenean.



8.20. Prebentzio neurriak.

- A)** Debekatuta dago zerbitzupeko langileak, engainuaren bidez edo inoren beharizan-egoeraz abusatuz, laneko edo Gizarte Segurantzako baldintza txarretan jartzea, baldintzok kalte egiten badiete legezko xedapenen, hitzarmen kolektiboen edo banakako kontratuaren bidez langileentzat aintzatetsitako eskubideei, edo eskubideok ezabatu edo murrizten badituzte.
- B)** Debekatuta dago aldi berean hainbat langileri lana ematea Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean altan eman gabe edo, bere kasuan, dagokion lan baimena jaso gabe.
- C)** Debekatuta dago langileak legeak ezartzen duenaren kontra lagatzea
- D)** Debekatuta dago pertsona bati lan baldintza faltsuak eskaintzea bere lanpostua uztera bultzatzeko.
- E)** Debekatuta dago lan bat burutzea behar besteko prestakuntza edo ezagutza ez duten langileen aldetik.
- F)** Debekatuta dago lanean pertsona bat larriki diskriminatzea bere sexuarengatik edo bere ideologia, erlijio edo sinesmenengatik, etnia edo arrazarengatik, familiaren egoeragatik, desgaitasunarengatik, edo langileen ordezkari sindikala izateagatik.
- G)** Debekatuta dago, edozein modutan eta edozein baliabide erabilita, askatasun sindikalaren edo grebarako eskubidearen egikaritzea eragozteko edo mugatzea.
- H)** Debekatuta dago lan bat burutzea laneko arriskuei aurrea hartzeko arauak hautsiz eta bideak ez erraztea langileek euren jardura egikari dezaten segurtasun eta osasun neurri egokiekin.



- I) Debehatuta dago lan bat burutzea laneko segurtasunaz arduratzen den pertsonak gainbegiratu gabe
- J) Debehatuta dago langileek beren jarduna behar besteko segurtasun eta higiene neurriekin egin dezaten behar dituzten baliabideak ez ematea.
- K) Derrigorrezkoa da eman diren segurtasun eta higiene baliabideak erabiltzea.
- L) Debehatuta dago dagokion agintaritzaren administratiboak emaniko edozein agindu bete gabe uztea, horrekin langileen bizia, osasuna edo osotasun fisikoa arrisku larrian jartzen dutenean.
- M) Derrigorrezkoa da erakunde kontratariei, kontratuen esleipendun direnei behar besteko agiriak exijitzea, laneko segurtasun, osasun eta higiene alorrean aplikagarri den araudiarekin ados.
- N) Derrigorrezkoa da egiaztatzea azpikontratutako erakundeek lan arriskuei aurrea hartzeko araudia betetzen dutela
- Ñ) Debehatuta dago ikuskatzeko edozein jardura eragozte.

8.21. Lurraldearen Antolamenduaren eta Hirigintzaren (Zigor Kodearen 319 artikulua) eta Ingurumenaren (Zigor Kodearen 325. artikulua).

Jokaeren deskribapena:

- Sustatzaile, eraikitzaile edo zuzendari teknikoek baimendu gabeko eraikuntza egitea bideetarako, berdeguneetarako edo jabari publikoko ondasunetako lurzoruetan, legez edo administrazioaren bidez, paisaia, ekologia, arte, historia edo kultura aldetik balioa aintzatetsita duten lekuetan, edo zio berberengatik babes bereziko hartu diren lekuetan.



- Sustatzaile,eraikitzaile edo zuzendari teknikoek urbanizatu ezin den lurzoruan baimendu ezineko eraikuntza egitea.
- Ingurumena babesteko legeak edo izaera orokorreko beste xedapenak urratuz eta pertsonentzako arriskuak eraginez igorpenak, isurketak, erradiazioak, erauzketak edo indusketak, lurreztatzeak, zaratak, dardarak, injekzioak edo bilguneak, zuzenean edo zeharka egitea.

8.22. Prebentzioa.

A) Debekatuta dago, zuzenean edo zeharka eta behar bezain baimenduta egon gabe, igorpenak, isurketak, erradiazioak, erauzketak edo indusketak, lurreztatzeak, zaratak, dardarak, injekzioak edo bilguneak egitea atmosferan, lurzoruan, lur-azpian, lurreko uretan, lurrazpiko uretan, itsasoko uretan eta mugaz gaindiko zabalguneeetan barne, baldin eta jarduera horiekin sistemei eta pertsoneri kalte egiten bazaie.

B) Debekatuta dago, zuzenean edo zeharka eta behar besteko baimenak jaso gabe, lurrez betetzeak, zaratak eta bibrazioak egitera atmosferan



lurzoruan, lur-azpian, lurreko uretan, lur azpiko edo itsasoko uretan, itsas zabalean eta mugaz gaindiko zabalguneeetan barne, injekzioak egitea ego materia botatzea, baldin eta horiek eginez natur sistemai eta pertsonai kalte egiten bazaie.

C) Debekatuta dago jarduera klandestinoak egitea edo jarduerak hasteko eta egikaritzeko behar den baimen edo lizentzia jaso gabe aritzea.

D) Debekatuta dago ingurumenari buruzko informazioa faltsutzea edo ezkutatzea.

E) Debekatuta dago hondakinak batzea,garraiatzea, balorizatzea,ezabatzea edo baliatzea, baldin eta jarduera horiekin pertsonak, animaliak edo landareak, edo airearen, lurzoruaren edo uren kalitatea arrisku larrian jartzen badira.

F) Debekatuta dago, edozein bide erabilita, ingurumenaren babes eta segurtasun alorrean barne prozedurak egokiro betetzen direla egiaztatzeko lanak egin gabe uztea.

G) Debekatuta dago ikuskatze lanerako edozein jarduera eragozte.

H) Debekatuta dago hirigintza,eraikuntza edo eraikigintza lanak burutzea bide, berdegune, jabari publikoko ondasun edo legearen edo administrazioaren arabera paisaia-balorea edo balore ekologikoa,historikoa edo kulturala aitortu zaien tokietan, edo arrazoi horiengatik bereziki babestu beharrekotzat jo direnetan.

I) Debekatuta dago lurzoru ez urbanizagarrian onartu ezin diren hirigintza lanak eraikuntzak edo eraikigintza lanak burutzea.



8.23. Funtzionario-eroskeria (Zigor Kodearen 419.etik 427. bis-eradoazen artikulua).

Jokaeren deskribapena:

- Agintari edo funtzionario publikoak, bere onurarako edo beste inoren onurarako, bere kabuz edo beste pertsona baten bidez, emaria edo esku-erakutsia jasotzea edo eskatzea edota eskaintzea edo hitzematea onartzea, bere karguari dagozkion egintzetatik kanpokoren bat egiteko edo egin beharko lukeena ez egiteko edo arrazoirik gabe atzeratzeko .
- Agintari edo funtzionario publikoak, bere onurarako edo beste inoren onurarako, bere kabuz edo beste pertsona baten bidez, bere karguagatik eskaini zaion dohaina edo oparia hartzea edo eskatzea, betetzen duen karguari dagozkionak egiteko edo esandako jarreraren ordainetan.
- Agintari batek edo funtzionario publiko batek, bere onurarako edo hirugarren baten onurarako, bere bidez edo hirugarren baten bidez, karguagatik edo eginkizunagatik eskainiko zaizkion opariak onartzea.
- Aurreko artikuluetan xedatutakoa epaimahaikoei, artekariei, adituei edo funtzio publikoa betetzen duten pertsonetatik beste edozeini ere aplikatuko zaio.
- Agintari edo funtzionario publiko bati edo funtzio publikoan ari den pertsonari emari, esku-erakutsi, eskaintza egitea bere karguaren kontrako



egintza egin dezan edo gauzatu behar duen egintza ez gauzatzeko edo atzeratzeko, edo dohaintza edo emaria ematea dagozkion egintzen kontrakoa edo bere karguari dagokion egintza bat egin dezan, egin beharrekoa egin ez dezan edo geroratu dezan, edo bere kargu edo eginkizunagatik, emari, esku-erakutsi edo eskaintza egitea funtzio publikoaren egikaritzan parte hartzen duen agintari edo funtzionario publikoaren eskariari erantzunez.

- Funtzionario-eroskeriaren delituari dagokion zigorretik salbuetsita geratuko da norbanakoa, baldin eta agintari edo funtzionario publikoak eskatutako emari edo esku-erakutsia, behin ematea onartu ondoren, ikertzeko betebeharra duen agintariari egitatea salatzen badio horren inguruko prozedura hasi aurretik, betiere salaketa aurkezten duenean, egitateak gertatu diren egunetik hamar egunera baino gutxiagoko epean.

- Aurreko lerroketan ezarritakoa aplikatuko da egintzak zigorgarriak direnean edo ondorengoei eragiten dietenean:

a) Europako Batasuneko herrialde bateko edo atzerriko bestelako herrialde bateko legegintza, administrazio edo justizia esparruetako izendapenezko edo aukeraketa bidezko kargu edo lanpostua duen edozein pertsona.

b) Europako Batasuneko edo atzerriko beste edozein herrialde batentzat, erakunde publiko batean zein enpresa publiko batean, edo nazioarte mailako bestelako erakunde publiko batentzat, funtzio publikoaren arloan lan egiten duen edozein pertsona.

c) Europako Batasuneko edo nazioarte mailako erakunde publiko bateko edozein funtzionario edo eragile.



8.24. Prebentzio neurriak:

A) Debekatuta dago, zuzenean edo bitartekoen bidez, edonolako abantaila edo onura ekonomiko edo beste era batekoa agintzea, eskaintzea edo ematea enpresei, bere administratzaileei, zuzendariei, langileei edo haien senideei, merkantzien salerosketan edo zerbitzu bat kontratatzerakoan edo harreman komertzialetan onuradun izateko edo izateagatik.

B) Debekatuta dago, zuzenean edo zeharka edo bitartekoen bidez, edonolako onura edo abantaila onartzea edo eskatzea, hirugarrenen aurrean merkantzien salerosketan edo zerbitzu bat kontratatzerakoan onuradun izateko edo izateagatik.

C) Debekatuta dago, zuzenean edo zeharka edo bitartekoen bidez, kontratatuko diren hornitzaileei ezkutuko komisioak eskaintzea edo eskatzea.

D) Debekatuta dago agintari edo funtzionario publikoak usteltzea edo usteltzen saiatzea, diruzko edo bestelako emari, esku-erakutsi, eskaintza edo hitzemateekin, hauen probetxurako edo hirugarrenen probetxurako, edo zentzu honetan egin dituzten eskariei erantzutea, eginkizun publikoaren egikaritzarekin zerikusia duten jardunak egin ditzaten edo egin ez ditzaten jarduera ekonomikoren bat burutzerako orduan kontratu, negozio edo bestelako abantaila lortzeko.



- E)** Debekatuta dago EAJ-PNVren urteko kontuak edo/eta bestelako kontularitza-agiriak edo agiri finantzarioak faltsutzea.
- F)** Debekatuta dago kontularitzako euskarri faltsuak erabiltzea, baliozkotzea edo kontabilizatzea.
- G)** Debekatuta dago alderdikideei eskubideak ukatzea edo eragozte.
- H)** Debekatuta dago erakunde publikoei dagokien ikuskatze lana eragozte.
- I)** Debekatuta dago baimenik gabe EAJ-PNVren ondarea erabiltzea.
- J)** Debekatuta dago nork bere kargua gehiegikeriaz baliatzea, EAJ-PNVren kaltetan.
- K)** Debekatuta dago EAJ-PNVren kargura derrigorrak hartzea, bakoitzari dagozkion eginkizunetatik kanpo eta Alderdiaren kaltetan.

8.25. Influentzia-trafiko delitua (Zigor Kodearen 429. artikulua)

Jokaeren deskribapena:

Berarentzat edo beste inorentzat onura ekonomikoa ekar dezakeen ebazpena lortzeko, funtzionario publiko edo agintari bati eragitea, funtzionario publiko edo agintari horrekin edo beste batekin dituen harreman pertsonalek eratortzen dituzten egoeretatik beste edozeinez baliatuz.



8.26. Prebentzio neurriak.

A) Debekatuta dago funtzionarioekin edo funtzionario publiko ohiekin eta herri kargudunak izendatzeko erakundeekin harremanetan jartzea alderdikide baten edo EAJ-PNVren probetxurako mesedeak edo etekinak ateratzeko.

B) Debekatuta dago, zuzenean edo bitartekoen bidez, edonolako abantaila edo onura ekonomiko edo beste era batekoa agintzea, eskaintzea edo ematea enpresei, bere administratzaileei, zuzendariei, langileei edo haien senideei, merkantzien salerosketan edo zerbitzu bat kontratatzerakoan edo harreman komertzialetan onuradun izateko edo izateagatik .

C) Debekatuta dago, zuzenean edo zeharka edo bitartekoen bidez, edonolako onura edo abantaila onartzea edo eskatzea, hirugarrenen aurrean merkantzien salerosketan edo zerbitzu bat kontratatzerakoan onuradun izateko edo izateagatik.

D) Debekatuta dago, zuzenean edo zeharka edo bitartekoen bidez, kontratatuko diren hornitzaileei ezkutuko komisioak eskaintzea edo eskatzea.

E) Debekatuta dago agintari edo funtzionario publikoak usteltzea edo usteltzen saiatzea, diruzko edo bestelako emari, esku-erakutsi, eskaintza edo hitzemateekin, hauen probetxurako edo hirugarrenen probetxurako, edo zentzu honetan egin dituzten eskariei erantzutea, eginkizun publikoaren egikaritzarekin zerikusia duten jardunak egin ditzaten edo egin ez ditzaten jarduera ekonomikoren bat burutzerako orduan kontratu, negozio edo bestelako abantaila lortzeko.



- F)** Debekatuta dago EAJ-PNVren urteko kontuak edo/eta bestelako kontularitza agiriak faltsutzea.
- G)** Debekatuta dago kontularitza euskarri faltsuak erabiltzea, baliozkotzea edo kontabilizatzea.
- H)** Debekatuta dago alderdikideei eskubideak ukatzea edo eskubideak egikaritzea eragozte.
- I)** Debekatuta dago dagokien erakunde publikoei egin beharreko ikuskatze lanak egitea eragozte.
- J)** Debekatuta dago baimenik gabe EAJ-PNVren ondarea xedatzea.
- K)** Debekatuta dago nork bere kargua gehiegikeriaz baliatzea, EAJ-PNVren kaltetan.
- L)** Debekatuta dago EAJ-PNVren kargura derrigorrak hartzea, bakoitzari dagozkion eginkizunetatik kanpo eta Alderdiaren kaltetan.



8.27. Konstituzioak bermatzen dituen Funtsezko Eskubideak eta Askatasun Publikoak baliatzean eginiko delituak (Zigor Kodearen 510. eta 510. bis artikulua) :

Jokaeren deskribapena:

- Talde edo elkarten aurkako bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria eragitea, sustatzea edo publikoki eragitea arrazakeria nahiz zio antisemitengatik talde nahiz elkarte horietako kideen ideologia nahiz sinesmen,familia-egoera,etnia,arraza, nazio-jatorri,sexu,sexu-joera, gaixotasun edo deslaitasunarengatik.

- Banatzeko, hirugarren batzuei lortzen laguntzeko, hedatzeko edo saltzeko asmoz, idazkiak edo beste edozein motatako material edo euskarri ekoizten,egiten edo edukitzen dutenei, baldin eta idazki,material edo euskarri horiek aproposak badira jendaurrean gorrotoa, etsaigoa,bereizkeria edo indarkeria sustatu,bultzatu edo zirikatze talde baten, talde bateko zati baten edo,talde horretako kide izateagatik, pertsona baten aurka, zuzenean edo zeharka, arrazakeriagatik nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz pertsona horien ideologia nahiz sinesmen,familia-egoera, etnia,arraza edo nazio,nazio-jatorri,sexu,sexu-joera,sexu identitate,genero, gaixotasun edo desgaitasunarengatik.



- Genozidio delituak, gizateriaren aurkako delituak edo gatazka armatuaren kasuan babesturiko ondasun eta pertsonen aurkako delituak jendaurrean ukatzen, modu larrian arinki hartzen edo gorestea edo delituen egileak gorestea, baldin eta talde baten, talde bateko zati baten edo, talde horretarako kide izateagatik, pertsona baten aurka egiten badira, arrazakeriagatik nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz pertsona horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, familia-egoera, etnia, arraza edo nazio, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, sexu identitate, genero, gaixotasun edo desgaitasunarengatik, eta horrela, talde edo pertsona horien aurkako indarkeria-etsaigo- gorroto-edo bereizkeria-giroa sustatu edo sortzen laguntzen bada.

- Aurreko atalean zehaztutako taldeen edo talde horien zati baten edo, talde horietako kide izateagatik, edozein pertsonaren umiliazioa, mespretxua eta izena galtzea dakartzan ekintzen bidez, pertsonen duintasuna kaltetzea, arrazakeriarengatik nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz pertsona horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, familia-egoera, etnia, arraza edo nazio, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, sexu identitate, genero, gaixotasun edo desgaitasunarengatik. Banatzeko, hirugarren batzuei lortzen laguntzeko, hedatzeko edo saltzeko asmoz, idazkiak edo beste edozein motatako material edo euskarri ekoiztea, egitea edo edukitzea, baldin eta idazki, material edo euskarri horiek aproposak badira pertsonen duintasuna kaltetzeko, aipatutako talderen bati, talde horien zati bati edo, talde horietako kide izateagatik, edozein pertsonari umiliazio larria, mespretxua edo izena galtzea eragiten diotelako.



- Talde baten, talde bateko zati baten edo, talde horretako kide izateagatik, pertsona baten aurka egiten diren delituak, adierazpen publikoak egiteko edozein baliabide edo hedabideren bitartez goستن edo justifikatzea, delitu horiek pertsona edo talde horien aurka egin direnean arrazakeriarengatik nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz pertsona horien ideologia,erlijio nahiz sinesmen,familia-egoera, etnia, arraza edo nazio, nazio-jatorri, sexu,sexu-joera, sexu-identitate, genero, gaixotasun edo desgaitasunarengatik; eta, halaber, delituak egiten parte hartzea.

8.28. Prebentzio neurriak.

A) EAJ-PNVk derrigorrezko izango du bere jarduna legearen barruan burutzea eta ez ditu onartuko ezta baimenduko engainuzko jarrerak, maulak edo jokaera maliziatsuak, behar ez diren onurak edo abantailak lortzeko badira.

B) Derrigorrezkoa da sexu orientazio sexualagarengatik,arrazarengatik, ideologiarengatik, erlijio, maila sozial eta kulturalarengatik edonolako bazterkeria saihestea eta lan iturri eta materialei buruzko konfidentziasunari eustea.

C) Debekatuta dago pertsonen duintasuna kaltetzeko edo gutxiesteko informazioak edo izen ona zaintzeko eskubidea kaltetzeko berriak zabaltzea edo erakunde publiko eta pribatuei min edo kalte bidegabea eragitea eta adierazpen laidogarriak erabiltzea.



- D)** Derrigorrezkoa da intimitatea eta norberaren irudia errespetatzea.
- E)** Derrigorrezkoa da errugabetasun presuntzioa errespetatzea
- F)** Alderdikideek derrigorrezko izango dute erantzukizunez eta zorrotasunez jardutea, topikoak eta estereotipoak erabiltzea saihestuz, bereziki sexu, orientazio sexual eta kulturalagarengatik edonolako diskriminazio sortaraz dezaketen kasuetan. Era berean saihestuko dituzte, indarkeria eragiteko adierazpenak, hitz edo berba laidogarri eta iraingarriak edo norbanakoen izaera pertsonala eta beren osotasun fisiko eta morala kaltetzeko adierazpenak.
- G)** Derrigorrezkoa da irizpide berberaren arabera baloratzea emakume eta gizonek eginiko jarduerak, bizitza sozialaren gertakari eta eginkizun guztietan emakumeen presentzia egokiro islatzea, eta ezinbestean saihestu behar dira erreferentzia sexistak eta estereotipo laidogarriak.
- H)** Debekatuta daude hitz gordinak, eduki sexuala duten adierazpenak, biraoak, adierazpen arrazistak, sexistak, homofoboak eta gaigabetasunen bat duten pertsonak iraintzeko adierazpenak.
- I)** Gizalegezko baloreak ezagutzera emateko eta hedatzeko derrigorra. EAJ-PNVren jardunak bermatu behar du printzipio horiek eta horietan aitortzen diren eskubideak eta askatasunak errespetatzen direla, bereziki aniztasun politikoari, kulturalari, linguistikoari, erlijioso eta sozialari dagokienez.



J) Adingabearen eskubideak defendatzeko derrigorra, pertsonaren duintasunarekiko errespetua, bere eskubideak eta bere nortasuna askatasunez garatu ahal izatea bermatzekoa.

K) Ondorengo printzipioak betetzeko derrigorra:

I. Oinarrizko Giza Eskubideak babestea.

II. Giza Eskubideak ez urratzea.

III. Afiliatzeko eta negoziazio kolektiborako askatasuna.

IV. Derrigortutako lana eta indarraren bidez derrigortutakoa desagerraraztea.

V. Haurren lana desagerraraztea.

VI. Enpleguan ematen den diskriminazioa desagerraraztea.

VII. Prebentziorako ikuspuntua, ingurumenaren mesederako.

VIII. Ingurumena errespetatzeko ekimenak.

IX. Teknologia ekologikoak hedatzea.

X. Ustelkeriaren, estortsioaren eta eroskeriaren kontrako borroka.

9. PLANA GAINBEGIRATZEA ETA EZAGUTARAZTEA

9.1. Planaren kontrola.

Ezinbestekoa da Planaren jarraipen eta gainbegiratze etengabea egitea, behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko. Jarraipen etengabearen eta bere kudeaketaren barruan, funtsezko gertatzen da



Planaren funtzionamendu egoki eta eraginkorra ahalbidetuko duten organismoak ezartzea. Zentzu honetan argitu beharra dago Planaren ezarpenak ez duela gainerako baliabide ekonomikoren beharrik, Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak eta Aberri Epaimahaiak jadanik dituen giza baliabideak eta baliabide materialak erabiliko direlako.

a) Instrukzio- eta kontrol-organoa: Aberri Berme eta Zaingo Batzordea (ABZB)

1.- Aberri Berme eta Zaingo Batzordea da arauak betetzen direla egiaztatzeko ardura bere gain duen barne organoa, bai eta eta planaren kontrolari dagozkion ataza guztiak burutuko dituen Barne Informazio sistemaren arduraduna ere -eguneratzea,gainbegiratzea- eta Barne Informazio kanalaren bidez helduko zaizkion komunikazioak eta salaketak izapidetuko ditu. Instrukzio lan hau funtsezkoa izango da erabakitzekeo ardura duen organoari, Aberri Epaimahaiari,, informazio fidagarri eta egokia eman beharko dio legearen arabera erabakiak hartu ahal izateko eta,era berean, EAJ-PNVrentzat eta bere egoera prozesalera begira egokiak izan daitezten.

2.- Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak bere kide bati eskuordetuko dizkio ikerketa espedienteaz informatzeko eta espedienteak izapidetzeko barne sistema kudeatzeko ardurak, 2/2023 legearen 8.2. artikulua jasotzen duenaren arabera.



3.- Banaka izendatuko den pertsona fisikoaren izendapena eta kargugabetzea, kide anitzeko organo horretako kide guztiena bezala, Informatzailea babesteko Agintaritza Independenteari jakinarazi beharko zaizkio, kasu honetan Euskadiko Autonomia Erkidegoko agintari edo organo eskudunei, dagokien erantzukizunen barruan, eta ondorengo hamar lan egunen epe barruan. Informazio horrekin batera azalduko da, baita, kargugabetzearen zioa.

Sistemaren arduradunak bere zereginak burutu beharko ditu independentziarekin eta EAJ-PNVren gainerako organoengandik bereizita eta autonomiaz; bere jardunean ezin izango du inolako jarraibiderik jaso eta baliabide pertsonal eta material nahikoak izan beharko ditu eskura lan hori egiteko.

Instrukzioak irauten duen bitartean, Aberri Berme eta Zaingo batzordeak informazioen kanala arautzen duten oinarriko printzipioei eusten zaiela zaindu beharko du, bereziki printzipio gidari izan behar duen konfidentziasunari dagokion aldetik. Bere funtzionamenduak ahalbidetzen dion arintasunarekin jardun beharko du ezagutuko dituen eta bere ardurakoak izango diren gertakariak argitze aldera.

Arestian deskribatutako eginkizunez gain, izapidetze organoak barne informazio kanala kontrolatzeko eginkizunak beteko ditu, haren bidez jasotako informazioa klasifikatuko du eta salaketen kudeaketa sistema osoa zuzenduko du.



b) Erabakiak hartzeko organoa: Aberri Epaimahaia.

Aberri Epaimahaia da arrisku penala gauzatzearen inguruan eman beharreko erantzukizunari buruzko erabakiak hartuko dituen. Erabaki hau hartuko da organo izapidetzailearen aldetik jaso duen informazioaren arabera (Aberri Berme eta Zaingo Batzordea), eta gertakarien azalpenen, ikerketen eta adostu diren ondorioen arabera.

Aberri Epaimahaiak babesa eta aholkularitza jaso ahal izango du organo izapidetzailearen aldetik.

Aberri Epaimahaiak salatzaileari emango dio ikerketatik ateratako azken ondorioaren berri .

Plan honetan aurreikusi diren prebentzio neurriak urratzea arau hauste larria edo oso larria izango da, EAJ-PNVren Diziiplina Araudian ezarritakoaren kalterik gabe. Ondorioz, Araudi horretan aurreikusten diren zigorrak aplikatuko dira.

Aberri Epaimahaiak ondorengo erabakiren bat hartu ahal izango du:



a) Espedientea artxibatzea, eta hau jakinaraziko zaie informatzaileari eta eragindako pertsonari.

b) Kasua Ministerio Fiskalari bidaltzea, baldin eta delituren baten zantzuak antzematen badira.

c) Instrukzio osoa agintari eskudunari bidaltzea

d) Prebentzio Plan honetan eta Estatutu eta barne araudian jasotzen denaren arabeko zigorra ezartzea. Kasu honetan bereziki beteko da EAJ-PNVren Diziiplina Araudian jasotzen dena.

9.2. Plana ezagutzera ematea eta betearaztea

Plan hau, arrisku penalei aurrea hartzeaz arduratzen den neurrian, irakurgarri eta eskuragarri egongo da EAJ-PNVren webgunean argitaratuko den estekaren bidez, eta alderdikideek eta herritarrek une oro ezagutu ahal izango dute EAJ-PNVk bere baitan delituei aurrea hartzeko daukan borondatea, eta berariaz ezarriko den kanalaren bidez komunikatu ahal izango dira Alderdiaren barruan indarrean dagoen legeriaren kontrako delituak edo jarduerak antzematen badira.

Barne eta kanpoko informazio kanalei buruzko informazioa agertu beharko da EAJ-PNVren webgunearen hasierako orrian, bereizita eta erraz antzemateko eta identifikatzeko moduan.

Eguneratzeari dagokionez, Prebentzio plan batek kudeaketa programa dinamikoa behar duela gogoan, urtero, planaren berrikusketa



egingo da eta bereziki aztertuko dira planarekin zerikusia izan dezaketen arau aldaketek eta EAJ-PNVren baitan egiten diren aldarazpen organikoek, programaren berrikusketa gomendatzen dutenean. Berrikusketa eta egiaztatze lan hau dagokio arauen betepenaz arduratzen den instrukzio eta kontrol organoari, Aberri Berme eta Zaingo Batzordeari, alegia.

Edozein kasutan, eredia berrikusteko lanak abian jarriko dira beti EAJ-PNVren funtzionamendua arautzen duten lege arauak nabarmen aldarazi direnean, edota alderdi politikoen araudia aldatzen denean, plan hau egin zen momentutik, EAJ-PNVren baldintzak aldatu direnean, salaketak aurkeztu direnean Planaren arauak urratu direla esanez, edo arauak bete ez direla antzematen denean.

10. BARNE ESPARRUAN INFORMAZIOA EMATEKO SISTEMA

10.1. Xedea eta izateko arrazoia.

Delituei aurrea hartzeko Planak, eraginkorra izango bada, informazioa jasotzeko prozedura behar du, non eman diren arriskuei, gauzatzetik hurbil daudenei edo gauzatu izanaren zantzuak daudenei buruzko gertakariak jasoko baitira. Informazioa jasotzeko prozedura horri oinarria emateko, barne informazio sistema bat sortu da, eta egitura antolatu gisa jardungo du Planak bere helburuak bete ditzan, egin den delituari buruzko edo arrisku baten gauzatzeari buruzko behar besteko informazioa emango duelako.



Barne informazio sistema hau egokitu da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 EB Zuzentarauaren arabera, Batasunaren Zuzenbidearen urraketen berri emango duten pertsonak babesteari buruzkoarenera, bai eta arauzko hutsegiteez eta ustelkeriaren kontrako borrokarako gaiez informatuko duten pertsonak babesteko otsailaren 20ko 2/2023 legearen arabera ere.

Sistema honen funtzionamenduaren oinarrian daude bilatzen den helburutik eratortzen diren printzipioak, eta ondorengoak dira:

- Errugabetasun presuntzioa eta nork bere ohorea babesteko eskubidea
- EAJ-PNVren prozeduretan integratzea.
- Erraztasunak komunikatzailearentzat.
- Kontaktatzeko askotariko bideak.
- Sistema honen berri ematea.
- Informazioaren fidagarritasuna.
- Konfidentzialtasuna. Datu pertsonalak babestea

Printzipio hauen artetik, aipamen berezia merezi du azkenak, bere ezaugarrietan eta erabileran gehien eragiten duena delako. Sistemaren konfidentzialtasuna funtsezko zutabea da, komunikatzaile/salatzaileari bermatuko diolako eman duen informazio hori eta bere datu pertsonalak konfidentzialtasun osoz baliatu eta erabiliko direla. Puntu honetan nabarmendu beharra dago sistemaren konfidentzialtasunak ez dakarrela, ezinbestean, anonimotasuna. Beste alde batetik, komunikazio edo



salaketa bat egiteak soilik esan nahi du barne informazio zerbitzuaz arduratzen den organoaren aldetik (Aberri Berme eta Zaingo Batzordea) izapide bat edo ikerketa-prozesu bat hasiko dela, komunikatutako/salatutako gertakariak egiaztatze behar den informazioa ezagutze aldera, eta puntu honetan garrantzitsua da, ezinbestekoa ez esatearren, salatzaila eta kudeaketaz arduratzen den organoa elkarren artean harremanetan jarri ahal izatea, bidalitako edo jasotako informazioak egiaztatze, egin den ikerketaren beharren arabera.

Ondore hauetarako, ahalbidetu egingo da sistemak segurtasun osoz funtzionatzea, informatzailearen eta komunikazioan aipatuko den edozein hirugarren baten nortasunaren konfidentziasuna bermatze aldera, bai eta informazioa kudeatzeko eta izapidetzeko orduan garatuko diren eginbideena ere, eta datuen babesa bermatuz baimenik gabeko pertsonala horietan sar ez dadin. Konfidentziasuna bermatuko da komunikazioa egitean ohikoak ez diren salaketa-kanaletik egiten denean edo gai hauek jorratzeko ardura ez duten langileei helarazten zaienean. Langile hauei prestakuntza egokia emango zaie araua haustea oso larria izan daitekeela ohartaraziz. Halaber, derrigorrezkoa izango da komunikazioaren hartzaileak informazio hori sistemaren arduradunari berehala helaraztea.



10.2. Informazioak kudeatzeko prozedura: barne informazio kanala

- Informazioak jasotzea

10.2.1. Barne informazio kanalaren bidez, edozein pertsonak bere zalantzak, iradokizunak aurkeztu ahal izango ditu Plan hau ez betetzearen inguruan. Era berean, edozein pertsonak egoki jotzen duen jakinarazpena/salaketa jarri ahal izango du bere ustetan EAJ/PNVk Europar Batasunaren Zuzenbideko arauen bat urratu baldin badu, egitez edo ez egitez, bai eta egitez edo ez egitez arau-hauste penal edo administratibo larri edo oso larriren erantzulea bada Ogasun Publikoari eta Segurantzza Sozialari kalte ekonomikoa eraginez. Jakinarazpena/salaketa behar bezala izapidera onartzeko, jakinarazpen/salaketa hauetan ondorengoak adierazi beharko dira:

- Salatzailea behar bezala identifikatuta bere izen-abizenekin eta Nortasun Agiriaren zenbakiarekin.
- Jakinarazpena/salaketa azaltzera begira, gertakariak edo argudioei buruzko azalpen argi eta zehatza.
- Salaketa noren edo zein erakunderen kontra aurkezten den.
- Salaketa idatziz edo ahoz aurkeztu ahal izango da, edo bi eratara. Salaketa ahoz egin ahal izango da telefonoz edo ahots mezularitza zerbitzuen bidez eta salatzaileak eskaria egin ondoren, bilera presentzial batean eta zentzuzko epe barruan.



10.2.2. Arestian esan bezala, organo izapidetzailearen aldetik une oro zainduko da salaketa jartzailearen konfidentzialtasuna, eskuduntza duen agintariak-judiziala edo administratiboa- informazio hori eskatzen duenean salbu, eta kasu horretan EAJ-PNV derrigortuta egongo da informazio hori eskatu duen organoari ematea.

10.2.3. Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak jaso izanaren agiria helaraziko dio salatzaileari, komunikazio jasotzen denetik zazpi eguneko epe barruan .

10.2.4. Informatzailearekin komunikazio irekia bideratuko da eta, beharrezko jotzen bada, informazio gehigarria eskatuko da .

10.2.5. Komunikazio honetan aipatzen den pertsonari aitortuko zaio egozten zaizkion egiteak edo ez egiteak zein diren jakiteko eskubidea, bai eta edozein momentutan entzuna izatekoa ere.

10.2.6. Informazioa anonimotasunez eman ahal izango da.

10.2.7. Informazioa behin aurkeztuta, informazioa kudeatzeko sisteman erregistratuko da eta identifikazio-kode bat emango zaio. Informazioa kudeatzeko sistema datu base seguru batean gordeko da eta ondorengo datuekin beteko da:

- a) Jaso den eguna.
- b) Identifikazio kodea.
- c) Egin diren egintzak.
- d) Hartu diren neurriak.
- e) Itxiera eguna.



10.2.8. Ministerio Fiskalari informazioa berehala igorriko zaio informazioan jasotzen diren egintzak delituzkoak izan ahal direnean. Europar Batasunaren kaltetan badira, Europako Fiskaltzari igorriko zaio.

10.3. Datuak babestea eta Intimitate-eskubidea.

10.3.1 Edozein kasutan, une oro bermatuko da komunikazio edo salaketaren konfidentzialtasuna. Eginiko komunikazio guztiekin espediente bat sortuko da eta erreferentzia batekin erregistratu eta identifikatuko da, eta datuak babesteko araudian aurreikusitakoa betetzen dela bermatuko da. Ikerketa prozesu guztietan parte hartzen duten pertsona guztiak derrigortuta daude behar den konfidentzialtasuna bermatzera eta isilpean gordetzera jaso dituzten datu eta informazio guztiak. Ez badute egiten, zigortuak izan ahal dira.

10.3.2.Datu pertsonalen edozein trataera, datu pertsonalak elkartrukitzea edo transmititzea barne, EBko 2016/679 Araudiaren, EBko 2016/679 Zuzentarauaren, Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eta haren garapen xedapenaren arabera egingo da.

10.3.3.Ez dira datu pertsonalak gordeko salaketa zehatz bat aztertzeko orduan argi eta garbi beharrezko jotzen ez badira edo, nahigabe gordetzen badira, atzerapenik gabe ezabatuko dira.

10.3.4. Informatzaileei berariaz informatuko zaie beren nortasuna, edozein kasutan, babestua izango dela eta isilpean gordeko dela, ez zaiela komunikatuko azaltzen diren egintzetan aipatzen diren pertsonen ezta hirugarren batzuei ere.

10.3.5. Azaltzen diren egintzetan aipatzen den pertsonari ez zaio, inola ere, informatzailearen nortasunaz informatuko.



10.3.6. Barne Informazio Zerbitzuan jasota dauden datu pertsonaletara ondorengo pertsona hauek baino ezin izango dira sartu:

- a) Sistemaren arduraduna eta zuzenean kudeatuko duena.
- b) Giza Baliabideen arduraduna.
- c) EAJ-PNVren zerbitzu juridikoen arduraduna, baldin eta komunikazioan azaltzen diren egintzen inguruan legezko neurriak hartu behar badira..
- d) Datu hauek kudeatzeko izendatuko diren arduradunak.
- e) Datuak babesteko arduretara eskuordetua.

10.3.7. Zilegitzat joko da datu hauek beste pertsonak tratatzea eta kudeatzea, bai eta hirugarrenei komunikatzea ere, entitatearen baitan neurri zuzentzaileak hartzeko behar denean edo , bere kasuan, egoki joko diren zigor prozedurak izapidetzeko orduan..

10.3.8. Tratamendu honen pean egongo diren datuak informazio sistema honetan gorde ahal izango dira soilik informatutako egintzen inguruko ikerketa hastea egoki ote den erabakitzeko denbora-tartean. Eman den informazioa, edo haren zati bat, egiazkoa ez dela egiaztatzen bada, berehala ezabatu beharko dira inguruabar hori ematen dela jakiten denetik aurrera, salbu eta egiarik eza zilegi ez den egintza denean eta, kasu horretan, informazioa gordeko da prozedura izapidetzeko behar den denboran..



10.4. Onarpen tramitea

10.4.1. Informazioa erregistratuta, ABZB-CNGyC barne erakundeak egiaztatu beharko du hartan jasotzen ote diren Delituei aurrea hartzeko Plan honen eta 2/2003 legearen aplikazio esparruaren barruan jasotzen diren egintzak edo jokaerak.

10.4.2. Hasierako analisi hau eginda, ABZB-CNGyC honek erabakia hartuko du informazioa erregistratu den egunetik aurrera hamar eguneko epe barruan. Ondorengoak izan ahal dira erabakiak:

a) Komunikazioa ez onartzea, ondorengo kasuren bat ematen bada:

1º.- Azaldu diren egintzek egiantzik ez dutenean.

2º.- Azaldu diren gertakariak Prebentzio Plan honen aplikazio esparruan jasotzen den ordenamendu juridikoaren arau hausterik ez direnean.

3º.- Komunikazioak argi eta garbi fundamenturik ez duenean edo ABZB-CNGyC erakundearen aburuz delituren baten bidez lortu dela ulertzen denean. Azken kasuan, ez onartzeaz gain, Ministerio Fiskalari igorriko zaio delitu jotzen diren egintzen inguruabar guztien zerrenda .

4º.-Komunikazioak arau hausteen inguruko informazio berri eta esanguratsurik gehitzen ez duenean aurretik egin diren komunikazioekin alderatuta, inguruabar berriak ematen direnean salbu.

Ez onartzea ABZB-CNGyCek jakinaraziko dio informatzaileari hurrengo bost lan egunen barruan, komunikazioa anonimoa denean salbu.

b) Komunikazioa izapidera onartzea. Izapidera onartzea egingo da hurrengo bost lan egunen barruan, komunikazioa anonimoa denean salbu.



c) Informazioa Ministerio Fiskalari berehala igortzea egintzak, antzeman daitezkeen zantzuen arabera, delituzkoak izan daitezkeenean edo Europako Fiskaltzari, egintzek Europar Batasunaren interes finantzarioei kalte egiten badiete..

d) Komunikazioa igortzea izapiderako eskudun jotzen den autoritate, entitate edo organismoari.

10.5. Instrukzioa.

10.5.1. Instrukzio-prozesuak hartuko ditu aditzera eman diren gertakarien egiantza egiaztatzea bideratutako jarduera guztiak, eta ABZB-CNGyCek burutuko du.

10.5.2. Bermatu egingo da informazioan aipatzen den pertsonak horren berri jasotzea, bai eta kontatzen diren gertakarien berri ere. Halaber, alegazioak idatziz aurkezteko eskubidea duela informatuko zaio, eta bere datu pertsonalen tratamenduaren inguruan dagozkion eskubideen berri emango zaio.

10.5.3. Alegazioak idatziz aurkeztu ahal izatearen kalterik gabe, instrukzioak barne hartuko du, ahal denean, kaltetutako pertsonarekin hitz egitea eta errugabetasun presuntzioa erabat errespetatuta, gertakariez egiten duen bertsioa azaltzea eskatuko zaio eta horretarako egoki jotzen dituen probak eta baliabideak aurkeztea.

Eragindako pertsonaren defentsa eskubidea bermatze aldera, pertsona honek, halaber, espedientea ikusi ahal izango du, edozein momentutan



entzuna izateko eskubidea aitortuko zaio eta abokatuarekin aurkeztu ahal izango dela informatuko zaio.

10.5.4. Ikerketa prozesuan parte hartuko duten ABZB-CNGyCeko kideak derrigortuta egongo dira lan horretan ezagutuko dituzten informazioak isilpean gordetzera.



10.6. Jarduerak burutzea.

10.6.1. Instrukzio-jarduerak amaituta, ABZB-CNGyCek txosten bat emango du Aberri Epaimahaiari igorriko zaiona eta gutxienez ondorengoak jasoko dituena:

- a) Azaldutako gertakarien azalpena, komunikazioa identifikatzeko kodearekin eta erregistro datarekin.
- b) Egin diren jarduerak egintzen egiantza egiaztatzeko.
- c) Instrukzioak eman dituen ondorioak eta izapideen eta horiek oinarri dituzten zantzuen balorazioa.

10.7. Informazioa erregistratzea.

Jaso diren informazioen eta horrek ekarri dituen barne ikerketen liburu-erregistroa egingo da, une oro konfidentzialtasuna eta ohorea babesteko baldintzak bermatuz.

Erregistro hau ez da publiko egingo eta Agintaritza Judizial eskudunak arrazoiarekin eskatuz, auto bidez eta prozedura judizialaren barruan eta haren babespean, zati batean edo osorik ikusi ahal izango da esandako erregistroaren edukia.

Emango diren informazioei eta eginiko barne ikerketei dagozkien datu pertsonalak hamar urtez gordeko dira.



10.8. Errepresaliak hartuko ez diren bermea.

“Errepresaliak hartzeko egintzak debekatzen dira, bai eta errepresaliak hartzearekin mehatxatzea eta Plan honetan jasotzen denaren arabeko komunikazioen bat aurkeztuko duten pertsonen kontra errepresaliak hartzen saiatzea ere.

Errepresaliatzen joko dira legeak debekatzen dituen egintzak zein ez-egiteak, zuzenean edo zeharka, halakoak sufrituko dituzten pertsonak besteekin alderatuz lan arloan edo zeregin profesionalean desabantaila-egoeran kokatuko dutenak, soilik informatzaile direlako edo errebelazio publikoren bat egin dutelako.

Errepresaliatzen joko dira:

a) Lan kontratua bertan behera uztea, kaleratzea edo lan harremana amaitutzat ematea, barne hartuta aldi baterako lan kontratua ez berritzea edo amaiera data baino lehen amaitzea, probaldia behin amaituta, edo ondasun edo zerbitzuen kontratuak amaiera data baino lehen amaitzea edo bertan behera uztea, diziplinazko edozein neurri inposatzea, degradatzea, lan mailaren igoera ukatzea eta lan baldintzen edozein funtsezko aldarazpena edo aldi baterako lan kontratua lan kontratu mugagabe ez bihurtzea, langileak lan kontratu mugagabea izateko aurreikuspen legítimoak dituenen; salbu eta neurri hauek hartzen badira zuzendaritzari dagokion ahalmenen barruan lan arloko legeriaren edo langile publikoaren dagokion estatutuaren araudiaren babesean, egiaztatutako inguruabar, gertakari edo hutsegiteengatik eta komunikazioa aurkeztearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

b) Kalteak eragitea, izen ona zikintzea edo galera ekonomikoak barne, hertsapen eta intimidazioa, jazarpena edo ostrazismoa barne.

c) Egin den lanari edo jarduerari profesionalari buruzko ebaluazio edo erreferentzia negatiboak ematea.



d) Zerrenda beltzetan sartzea edo sektore-eremu jakin batean informazioa zabaltzea, enplegua lortzea edo obrak edo zerbitzuak kontratatzea zailtzen edo eragotzita.

e) Lizentzia edo baimen bat ukatzea edo ezeztatzea.

f) Prestakuntza ukatzea.

g) Diskriminazioa, tratu txar edo bidegabea.

Arau haustek komunikatu edo errebelatuko dituzten pertsonen ondorengo babesneurriak jasoko dituzte EAJ-PNVren aldetik:

a) Informazio eta aholkularitza oso eta independenteak, erraz eskuratzeko modukoak eta dohainekoak, eskuragarri dauden prozedura eta baliabideen inguruan, babesa kaltetuaren kontra eginiko errepresalia eta eskubide urraketen aurrean.

b) Babes eta asistentzia eraginkorra edozein agintaritza eskudunaren aurrean errepresaliei aurre egiteko, babesa jasotzeko aukera adieraziko duen egiaztagiria barne.

c) Asistentzia juridikoa mugaz gaindiko zigor prozesuetan eta prozesu zibiletan, Batasunaren araudian jasotzen denarekin ados.

Hau dena, komunikazio edo errebelazio publikoak aurkeztearen edo egitearen ondorioz eman litezkeen prozedura judizialean ordezkartza eta defentsarako doako asistentzia juridikoaren gaineko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen babesean balia daitekeen asistentziaz gain.

Ez da ulertuko egintzen edo ez-egiteen inguruko informazioa komunikatuko duten edo errebelazio publikoren bat egingo duten pertsonen informazioa errebelatzeko mugarik hautsi dutela, eta haiek ez dute inolako erantzukizunik izango esandako komunikazio edo errebelazio publiko horri dagokionez, baldin eta zentzuzko arrazoiak badituzte informazio hori komunikatzea edo publikoki agertaraztea



ekintza edo ez-egite bat agertarazteko beharrezkoa dela pentsatzeko. Neurri honek ez ditu zigor izaerako erantzukizunak indargabetuko.

Arestiko paragrafoan aurreikusitakoa hedatzen da langileen ordezkariak eginiko informazio eta komunikazioetara, informazio erretserbatua edo isilpekoa ez emateko derrigor legalen mende izan arren. Hau dena lan araudiaren arabera aplikatu daitezkeen babes neurri berezien kalterik gabe.

Informatzaileek ez dute erantzukizunik izango publikoki informatzen edo jakinarazten den informazioa eskuratzeari edo jasotzeari dagokionez, betiere eskuratzeko edo jasotzeko hori delitua ez bada.

Informatzaileen beste edozein erantzukizun, komunikazioarekin edo jendaurrean jakinaraztearekin zerikusirik ez duten edo arau-hauste bat jakinarazteko beharrezkoak ez diren egintza edo ez-egiteen ondoriozkoa, aplikatzeko den araudiaren arabera eskatu ahal izango da.

Informatzaileek jasandako kalteei buruzko jurisdikzio-organo baten edo beste agintaritzaren baten aurreko prozeduretan, informatzaileak arrazoiz frogatu badu informatzaile horrek informazioa eman duela edo jendaurrean agertu duela eta kalte bat jasan duela, kaltea errepresalia gisa gertatu zela ulertuko da, informatzeagatik edo jendaurrean jakinarazteagatik. Kasu horietan, neurri kaltegarria hartu duen pertsonari egokituko zaio frogatzea neurri hori behar bezala justifikatutako arrazoietan oinarritu zela, komunikazio edo errebelazio publikoari lotuta ez zeudenetan.

Prozesu judizialean, difamazioari, egile-eskubideak urratzeari, sekretua urratzeari, datuak babesteko arauak urratzeari, enpresa-sekretuak ezagutarazteari edo lan- edo estatutu-zuzenbidean oinarritutako kalte-ordainen eskaerei buruzkoak barne, informatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango hark babestutako komunikazioen edo jendaurreko jakinarazpenen ondorioz. Pertsona horiek eskubidea izango dute, beren deskarguan eta aipatutako prozesu judizialen



esparruan, jendurrean jakinarazi izana edo jakinarazi izana alegatzeko, betiere arrazoizko arrazoiak badituzte uste izateko komunikazio edo errebelazio publikoa beharrezkoa zela arau-hauste bat agerian jartzeko. "